

GRADUA: EAZ + ZUZENBIDEA

2020/2021 IKASTURTEA

**DEFENTSA LEGITIMOA
NAZIOARTEKO TERRORISMOAREN
KONTRAKO BORROKA TRESNA GISA:
NON DAGO MUGA?**

EGILEA: Olga del Pozo Muñoz

ZUZENDARIA: Iñigo Iruretagoiena Agirrezabalaga

Bilbo, 2021eko otsailaren 11n



AURKIBIDEA

Laburdurak.....	3
0. Sarrera.....	4
1. Abiapuntua: indarra erabiltzearen debekua	5
2. Indarraren instituzionalizazioa	7
3. Defentsa legitimoa: figuraren oinarriak.....	9
3.1. <i>Conditio sine qua non</i> : aurretiazko eraso armatua.....	10
3.2. Gainerako baldintzak	11
3.3. <i>Ius in bello</i> eta <i>ius ad bellum</i>	13
4. Mehatxu berriak: nazioarteko terrorismoa	14
4.1. Nazioarteko terrorismoaren kontzeptua	15
4.2. Defentsa legitimoa aktore ez-estatalen aurrean.....	16
5. 2001eko irailaren 11ko atentatuak: norabide aldaketa	19
5.1. Nazioarteko terrorismoaren kontrako <i>gerra</i>	20
5.2. Defentsa legitimoa Afganistanen aurka	21
5.3. 2003, Irak: defentsa legitimo prebentiboaren doktrina	24
6. 2015eko azaroaren 13ko Pariseko atentatuak: Frantziako kasua aztergai	29
6.1. Elkartasuna Europar Batasunean: defentsa legitimo kolektiboa.....	31
6.2. Indar armatuaren erabilera Sirian: Estatu Islamikoaren kontrako borroka	34
6.2.1. Atentatuen aurretik: <i>unwilling or unable</i> testa	35
6.2.2. Atentatuen ostean: Segurtasun Kontseiluaren 2249 (2015) Ebazpena	38
7. Ondorioak	40
Bibliografia	42

LABURDURAK

BN.....	Batzar Nagusia
EB.....	Europar Batasuna
EBFT.....	Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatu
EBT.....	Europar Batasunaren Tratatu
EI.....	Estatu Islamikoa
EIKNK.....	Estatu Islamikoaren Kontrako Nazioarteko Koalizioa
NATO.....	Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea
NBE.....	Nazio Batuen Erakundea
NJA.....	Nazioarteko Justizia Auzitegia
NSS.....	<i>National Security Strategy</i>
SESB.....	Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna
SK.....	Segurtasun Kontseilua

0. SARRERA

Azken urteotan, nazioarteko terrorismoak izugarrizko indarra hartu du, nazioarteko bake eta segurtasunaren aurkako mehatxu nagusien artean kokatu delarik. Etiologia anitz eta oso ezberdinak izan ditzakeen fenomeno izanik, gaur egun zalantzarik gabe nabariena eta bereziki presente duguna jihadismoa da.

2001eko irailaren 11ko atentatuek inflexio-puntu bat suposatu zuten mendebaldeko gizartearen imajinario kolektiboan: urrutikoa zirudien mehatxua, Ekialde Ertainean gertatutako gatazken eremura mugatutakoa, ordura arte itxura ukiezineko Estatu Batuak bezalako potentzia militarra erasotu eta mintzea lortu zuen. Gertakari horien aurrean, nazioarteko terrorismoaren kontrako borroka indartzeko beharra sortu zen, eta estrategia amerikarra nazioarteko zuzenbide publikoaren markoaren baitan legezkoak izango ez liratekeen mekanismoetan oinarritu zen, terrorismoari *gerra* deklaratu zitzaizolarik.

Hitz gutxitan esanda, nazioarteko bake eta segurtasuna arriskuan jartzen duten mehatxuei aurre egiteko segurtasun kolektiborako sistema alde batera utzita, 2001ean defentsa legitimoaren aldeko apustua egin zen, aurrekari garrantzitsu bat ezarriz eta Nazio Batuen Gutunaren 51. artikuluko figura desitxuratzeari hasiera emanez. Estatu Batuek defentsa legitimoa aldebakarreko indarraren erabilera justifikatzeko formula magiko gisa ezarri zuten, doktrina berriak ia egun batetik bestera finkatzera iritsiz: alde batetik, aktore ez-estatalen kontrako defentsa legitimoa, eta bestetik, defentsa legitimo “prebentiboa”, zeina aurretiazko eraso armaturik gabe deklaratu zitekeen, berehalako mehatxu baten aurrean defendatzeko beharra argudiatzen zuena.

Harrezkero, Europak nazioarteko terrorismoari aurre egiterako orduan aktore ez-estatalen kontra defentsa legitimoa egikaritzea onartu eta amerikarren antzeko eredua jarraitu du, adibide adierazgarriena Frantziak 2015eko azaroaren 13an Parisen gertatutako atentatuei erantzuteko hartutako jarrera dugularik. Laburbilduz, defentsa legitimoa oso kasu zehatzetan erabil zitekeen baliabidea izatetik Estatuak aldebakarreko ekintza armatuak aurrera eraman nahi dituztenerako aitzakia bihurtu da, nazioarteko komunitatearen isilbidezko onarpenaz gozatzen duena.

Hori horrela izanik, lan honen helburua nazioarteko terrorismoaren kontrako borrokan indarraren erabilera eta honen mugak aztertzea da, bereziki defentsa legitimoaren figuran eta hura legalki aplikatzeko bete beharreko baldintzetan erreparatuz. Aspektu orokorretatik hasita Frantziaren kasu zehatzera iritsiz, defentsa legitimoak XXI. mendean

jasan duen bilakaera analizatuko da, nazioarteko zuzenbide publikoak indarraren erabilera salbuesenez onartzeko aurreikusten dituen muga lausoak gainditzeko Estatuak azken aldian erabili izan dituzten interpretazio trikimailuetan arreta berezia jarriko delarik.

Amaitzeko, nazioarteko zuzenbideak askotan duen izaera anbigua kontuan hartuta, garrantzitsua da gai honen inguruko iritzi eta interpretazioak anitzak direla azpimarratzea, egia absolutu eta kategorikoa topatzea ezinezkoa delarik. Honen harira, interesgarria da Hersch Lauterpacht NJA-ren kide izandako epaileak 1952. urtean esandakoa gogoratzea: *“If international law is, in some ways, at the vanishing point of law, the law of war is, perhaps even more conspicuously, at the vanishing point of international law”*¹.

1. ABIAPUNTUA: INDARRA ERABILITZEAREN DEBEKUA

1945ean berretsitako Nazio Batuen Gutunak gerraosteak ekarritako etapa berrian Estatuak errespetatu beharreko nazioarteko testuinguru juridikoaren markoa definitu zuen. Nobedadeak ugariak izan ziren, baina guztien gainera 2.4 artikulua ezarritako debekua nabarmendu zen²: “Erakundeko Kideek uko egingo diote, beren nazioarteko harremanetan, indarra erabiltzarekin mehatxatzeari edo indarra erabiltzeari edozein estaturen lurralde-osotasunaren edo independentzia politikoaren kontra, edo Nazio Batuen xedeekin bateraezina den beste edozein modutan”.

Beraz, Gutunaren berrespenaz geroztik, nazioarteko harremanetan gatazkarik gertatuz gero, alderdiek nazioarteko bake eta segurtasuna kolokan jartzen ez duten konponbide baketsuak baliatzeko betebeharra dute (Gutunaren 2.3 artikulua). Indarraren erabileraren debekua argia da, zalantzarik gabekoa. II. Mundu Gerra amaitu berri egonik, gatazka armatuak hala edo nola ekiditeko neurriak hartzea logikoa eta presazkoa zirudien, baina debeku honek ez zuen hasieratik erabateko babesa jaso. Denborak aurrera egin ahala indartuz joan zen, eta 1970ean, indarra erabiltzearen debekua nazioarteko zuzenbidearen oinarritzko printzipio gisa finkatu zen BN-ren 2625(XXV) Ebazpena dela medio³:

¹LAUTERPACHT, Hersch: “The problem of the revision of the law of war”, *British Yearbook of International Law*, 29. bol., 1952, 382. or.

²CERVELL HORTAL, María José: *La legítima defensa en el derecho internacional contemporáneo*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2017, 21. or.

³1987ko BN-ren 42/22 Ebazpena ildo berean aritzen da, indarraren erabilera gaitzetsiz eta indarra erabiltzearen debekuak duen nazioarteko zuzenbidearen oinarritzko printzipio izaera azpimarratuz.

“*Kontuan izanik* ezen honako printzipio hauen garapen progresiboak eta kodifikazioak:

a) Estatuak, beren nazioarteko harremanetan, edozein Estaturen lurralde-osotasunaren edo independentzia politikoaren kontra, edo Nazio Batuen xedekin bateraezina den beste edozein modutan, indarra erabiltzearekin mehatxatzera edo indarririk erabiltzera joko ez dutelako printzipioa”.

Aipatutako ebazpenak 2.4 artikuluaen aurka doazen zenbait ekintza biltzen ditu, zerrenda honek *numerus apertus* izaera duelarik:

- a) Agresio gerra bakearen kontrako krimena da, eta Estatuak gerra horien aldeko propaganda egiteari uko egin behar diote.
- b) Lurralde edo mugekin erlazionatutako nazioarteko gatazkek ez dute indarraren mehatxu edo erabilera legitimo bihurtzen.
- c) Ezin da indarra edo mehatxua beste Estatu baten lurraldea okupatzeko erabili, eta horrela egitekotan, okupazio hori ez da legezkoztat hartuko.
- d) Errepresalia armatuak debekaturik daude.
- e) Menerapen koloniala pairatzen duten herrien aurka ezin da indarra erabili; herrien autodeterminazio eskubidea errespetatu beharra dago.
- f) Debekaturik dago talde armatuak edo indar irregularrak antolatzea, beste Estatu baten lurraldera bidali eta erasoak burutzeko.
- g) Beste Estatu baten guda zibilean edo terrorismoan parte hartzea edo talde hauei laguntza ematea debekaturik dago.

Jurisprudenziari erreparatuta, NJA-k izaera konbentzional, konsuetudinario eta inperatiboa duen arau gisa ulertzen du 2.4 artikuluko indarra erabiltzearen debekua⁴, Nazio Batuen Gutunaren muina delarik⁵. *Ius cogens* izanik, Nazio Batuen kide ez diren eta Gutuna aplikatzen ez zaien Estatuak ere errespetatu beharra dute, debekua Estatu guztiei *erga omnes* aplikagarri izanik.

⁴Ekintza militar eta paramilitarrak Nikaraguan eta honen kontra (Nikaragua v. Amerikako Estatu Batuak), epaia, *I.C.J. Reports 1986*, 90. or., 190. par.: “A further confirmation of the validity as customary international law of the principle of the prohibition of the use of force expressed in Article 2, paragraph 4, of the Charter of the United Nations may be found in the fact that it is frequently referred to in statements by State representatives as being not only a principle of customary international law but also a fundamental or cardinal principle of such law. The International Law Commission, in the course of its work on the codification of the law of treaties, expressed the view that «the law of the Charter concerning the prohibition of the use of force in itself constitutes a conspicuous example of a rule in international law having the character of jus cogens»”.

⁵Hori da, hain zuzen ere, NJA-k Kongoren aferan ematen dion garrantzia. Ikusi Ekintza armatuak Kongoko lurraldean (Kongoko Errepublika Demokratikoa v. Uganda), epaia, *I.C.J. Reports 2005*, 223. or.

2. INDARRAREN INSTITUZIONALIZAZIOA

Nahiz eta indarra erabiltzearen debekuaz aritu, biolentzia ez da ezabatu, baizik eta instituzionalizatu. Beste era batera esanda, indarraren erabilera deszentralizatu eta indibiduala debekatu da, honen egikaritza, nazioarteko bake eta segurtasuna kolokan egotekotan, NBE-ren esku geratzen delarik. Horretarako, Nazio Batuen Gutunak segurtasun kolektiboko sistema eratu du.

Nazio Batuen Gutunaren VII. Kapituluak (“Bakearen kontrako mehatxuak, bakearen-haustea edo eraso-ekintzak gertatzen diren kasurako ekintzak”) da, hain zuzen ere, aipaturiko indar instituzionalizatu hori garatzen duena. Azpimarratzekoa da indarkeriak *ultima ratio* izaera duela, eta, printzipioz, Gutunaren 2.3 artikuluan aldarrikatutako gatazken konponketa baketsuaren printzipioa lehenesten duela NBE-k. Mekanismo baketsuek ez funtzionatzekotan edo egoeraren larritasunak armen erabilera eskatzekotan, zera ezartzen du Gutunaren 42. artikulua:

“Segurtasun Kontseiluak irizten badiu 41. artikuluan aipaturiko neurriak desegokiak izan daitezkeela edo hala direla frogatu dela, zilegi izango du baliatzea, aireko, itsasoko eta lurreko indarren bidez, nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzeko edo berrezartzeko beharrezkoa den ekintza. Ekintza horren barruan sar daitezke erakustaldiak, blokeoak eta beste operazio batzuk, Nazio Batuetako Kideen aireko, itsasoko edo lurreko indarrek burutuak”.

Artikulu honi jarraiki, nazioarteko bake eta segurtasuna arriskuan jar dezaketen egoerak zeintzuk diren baloratzea SK-ri dagokio, eta esklusiboki organo honen esku geratuko da eraso edo mehatxu horri erantzuteko neurriak definitu eta aurrera eramatea. Dena den, SK-k denboran zehar hartutako jarrera ez da uniformea izan. Izan ere, VII. Kapituluak ulertu eta aplikatzeko era garai bakoitzeko testuinguru politikoak eraginda bilakaera historiko garrantzitsua jasan du.

Hasiera batean, SK-k jarrera gehienbat pasiboa hartu zuen. Honen arrazoia garaiko SESB eta Estatu Batuen arteko lehia, Gerra Hotza bezala ezagutzen dena hain zuzen, izan zen. Bi potentziak SKren parte izanik, bata besteari trabak jartzen zizkion, eta beto eskubidea tartean egonik ezinezkoa zen erabaki bateratuak hartzea. 1945 eta 1960 urteen artean, SESB-k 100 alditan betatu zituen ebazpenak, eta Estatu Batuek, 72 alditan 1966 eta 1990

urteen bitartean⁶. Arazo honen aurrean, BN-k Bakearen Aldeko Batasuna delakoa (gazteleraz *Unión Pro Paz* bezala ezagutzen dena) eratu zuen 1950. urtean 377 (V) Ebazpena dela medio. Ebazpen honek kritika ugari jaso zituen, Gutunean ezarritako eskumen banaketa alde batera uzten baitzuen: SK-k nazioarteko bake eta segurtasunaren aurkako mehatxu baten aurrean erantzunik ematen ez badu, BN-k gomendioak emateko ahalmena izango zuen. Dena den, ez zitzaion erabilera handirik eman.

Behin SESB-ren erorialdia gertatuta eta Gerra Hotza amaitutzat emanda, SK-k pasibotasuna alde batera utzi eta VII. Kapituluak eskaintako mekanismoak baliatuta indar armatua zekartzaten neurriak hartu zituen behin baino gehiagotan. 1990eko hamarkadan hartutako erabakien artean, Irakek Kuwaiten burututako inbasioaren harira emandako 678 (1990) Ebazpena gailentzen da, Estatuari beharrezko neurri guztiak hartzeko baimena eman ziena⁷.

Nahiz eta espresuki edo era zuzenean ez aipatu, beharrezko neurri guzti horien barne indarraren erabilera baimendu zen, eta VII. Kapituluaren aurreikusitako segurtasun kolektiborako sistema martxan jarri. Hala eta guztiz ere, gauzak ez ziren Gutunaren xedapenak zorrotz jarraituz egin, eta bestelako formulak erabili ziren: Estatuak haien indar armatuak SK-ren gida pean utzi beharrean, 34 Estatuak osatutako nazioarteko koalizio bat sortu zen, non Estatu bakoitzak indar armatua erabil zezakeen. Gutunaren 43. artikuluan adierazitako ideia helburua NBE indar armatu propioz osatuta egon zedin zen, horretarako hitzarmen bereziak sinatu behar zirelarik⁸. Hauek burutzea NBE-ri eta VII. Kapituluaren aurreikusitako mekanismoei izaera definitibo eta iraunkorra ematea suposatuko luke, baina hitzarmen horiek ez ziren inoiz burutu⁹. Beraz, nahiz eta garai horretan, Gerra Hotzean ez bezala, SK-k gatazken konponketan esku hartu, Gutunaren aurreikusita ez zeuden mekanismoak erabili ziren, berriz ere uniformetasun falta agerian geratuz eta Estatuak burututako ekintzek SK-ren kontrolatik ihes eginez.

⁶REMIRO BROTONS, Antonio, RIQUELME CORTADO, Rosa et al.: *Derecho internacional. Curso General*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2010, 698. or.

⁷“Actuando con arreglo al Capítulo VII de la Carta, 2. Autoriza a los Estados Miembros que cooperan con el Gobierno de Kuwait para que, a menos que el Iraq cumpla plenamente para el 15 de enero de 1991 o antes las resoluciones que anteceden, como se indica en el párrafo 1 de la presente resolución, utilicen todos los medios necesarios para hacer valer y llevar a la práctica la resolución 660 (1990) y todas las resoluciones pertinentes que la siguieron y para restablecer la paz y la seguridad internacionales en la región”.

⁸REGUEIRO DUBRA, Raquel: *La legítima defensa en derecho internacional*, Instituto Universitario General Gutiérrez Mellado, Madril, 2012, 63. or.

⁹NOVOSSELOFF, Alexandra: *Le Conseil de Sécurité des Nations Unies et la maîtrise de la force armée*, Bruylant, Brusela, 2003, 150. or.

Laburbilduz, Estatuak ezingo lukete, printzipioz, haien kabuz indarra erabili, baina arau orokor guztien antzera, honek ere badu bere salbuespena. Inguruabar berezi hori defentsa legitimoa izango litzateke, eraso armatu baten aurrean Estatuak berehalakotasunez eta haien burua babesteko helburuarekin eman dezaketen erantzuna, alegia. Azken garaiotan, eta bereziki 2001. urtetik aurrera, SK-k antzina izandako paper pasiboa berreskuratu du. Aurrerago ikusiko den moduan, irailak 11ko atentatuak defentsa legitimoa prebentiboaren doktrina delakoaren indartzea ekarri zuten, zeinaren bitartez Estatuak jarrera unilaterala nagusitu den.

3. DEFENTSA LEGITIMOA: FIGURAREN OINARRIAK

Nazio Batuen Gutunaren 51. artikulua defentsa legitimoa Estatuak eskubide immanente gisa taxutzen du, gainerako xedapenek hura gutxitu ezin dutelarik:

“Gutun honen ezein xedapenek ez du gutxiaraziko defentsa legitimoaren, dela banakakoaren zein kolektiboaren, eskubide immanentea Nazio Batuetako Kide baten kontrako oldarraldi armatuaren kasuan, harik eta Segurtasun Kontseiluak nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzeko beharrezko neurriak hartu arte. Kideek defentsa legitimoarako eskubidea baliatuz harturiko neurriak berehala jakinaraziko zaizkio Segurtasun Kontseiluari, eta ez diote inola eragingo Kontseiluak Gutun honen arabera nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzeko edo berrezartzeko beharrezko irizten dion ekintza edozein unetan baliatzeko duen aginteari eta ardurari”.

Artikulu honek zalantza gabeko aurrebaldintza bat ezartzen du: *eraso armatua*. Xedapena argia izan arren, ez da asmo txarrez egindako interpretazioetatik at geratu¹⁰. Aurretiazko eraso hori jasan barik, ez dago defentsa legitimoa legitimatzen duen gertaerarik, eta hala aldarrikatu du NJA-ren jurisprudentziak behin baino gehiagotan¹¹. Ondorioz, Estatu bat propioki erasotua izan ez bada eta defentsa legitimoaren lelo pean ekintza armatu bat burutzen badu, Gutunaren 2.4 artikulua aurkako supostuen barne kokatuko litzateke, agresio edo errepresalia armatu moduan. Baina, zer da zehazki eraso armatua?

¹⁰RODRÍGUEZ CARRIÓN, Alejandro J.: *Lecciones de derecho internacional Público*, Tecnos, Madril, 2009⁶, 539. or.

¹¹Ekintza militar eta paramilitarrak Nikaraguan..., *op. cit.*, 103. or.; Petrolio plataformak (Irango Errepublika Islamikoa v. Amerikako Estatu Batuak), epaia, *I.C.J. Reports 2003*, 186-187 or.; Palestinako lurralde okupatuan harresi bat eraikitzearen ondorio legalak, aholku-irizpena, *I.C.J. Reports 2004*, 194. or.; Ekintza armatuak Kongoko lurraldean..., *op. cit.*, 222-223 or.

3.1. *Conditio sine qua non*: aurretiatzko eraso armatua

Gutunak ez du espresuki definiziorik jasotzen¹². Horren faltan, 3314 (XXIX) Ebazpenak, 1974an argitaratutakoak, finkatu du agresio edo erasoaren kontzeptua bere 1. artikuluan: “Agresioa Estatu baten indarraren erabilera da, beste Estatu baten subiranotasun, lurralde osotasun edo independentzia politikoaren aurka, edo Nazio Batuen Gutunarekin bat ez datorren beste moduren batean burututakoa”.

Dena den, indar armatuaren edozein erabilera agresio gisa har ez dadin, aipatutako ebazpenaren 2. artikulua definizioa fintzen du, erasotzailea indarkeria *lehendabizi* baliatzen duen Estatu izango delarik. Bestalde, SK-k ustezko erasoala hala kontsideratzeko, ekintzaren larritasuna nahikoa izan den aztertu eta honen gainean erabaki ahalko du, betiere kasuan kasuko testuinguru eta garrantzizko inguruabarrei erreparatuz.

Azkenik, Ebazpenaren 3. Artikulua eraso gisa kalifika daitezkeen zazpi ekintza ezberdin zerrendatzen ditu, besteak beste:

- a) Inbasio edo okupazio militarra.
- b) Bonbardaketa edo bestelako armen erabilera.
- c) Itsas portuen edo kostaldeen blokeo militarra.
- d) Estatu bateko indar armatuen erabilera, beste Estatu baten indar armatuen aurka.
- e) Estatu baten indar armatuen erabilera, hauek era baimenduan beste Estatu baten lurraldean kokatuta daudelarik eta haien arteko akordioaren aurka.
- f) Estatu batek bere lurraldean beste Estatu batek hirugarren Estatu baten aurka ekintzak burutzea baimentzea, lurralde hori baliatuz.
- g) Estatu batek banda armatuak, talde irregularrak edota mertzenarioak beste Estatu batera bidaltzea, han indarra erabil dezaten.

Azpimarratzekoa da artikulua honetan jasotako zerrendak izaera irekia duela, eta zazpi ekintza hauetatik kanpo, SK-k hala ulertzekotan bestelako akzioak erasotzat kalifika ditzakela, 4. artikuluan ezartzen den bezala. Ebazpenaren atarikoan ere, zehazki honen 4.

¹²Aipatzekoa da, CERVELL HORTAL-ek (*op. cit.*, 84. or.) azpimarratzen duen bezala, erasoala definitzeko arazoak Gutuna idazterako momentuan bertan hasi zirela: Gutunaren ingelesezko eta gaztelerazko bertsioetan “eraso armatu” esamoldea aukeratu zen bitartean (*armed attack* eta *ataque armado*), frantsesezko bertsioan aurkitzen dugun terminoa “agresioa” da (*aggression*). Bertsio guztiak testu ofizialak izanik, guztiek autoritate berdina dute.

puntuak, SK-k agresioaren definizioa *gidalero* moduan erabili beharko duela zehazten da, betiere Gutunarekiko konforme arituz.

3.2. Gainerako baldintzak

Ohiturazko nazioarteko zuzenbideak defentsa legitimoaren egikaritzak premiazkoa, proportzionala eta berehalakoa izan behar duela zehazten du¹³. Bestalde, 51. artikuluan bertan baldintza gehigarriak ezartzen dira, hala nola, behin-behinekotasuna eta SK-ri informatzeko betebeharra.

1) *Premiazkotasuna*

Defentsa legitimoak erasoaren aurrean eta honi amaiera emateko beharrezko neurria izan behar du, bestelako mekanismoak nahikoa ez direlarik. NJA-ren iritzari erreparatuta, jurisprudentziak ez du premiazotasuna erreminta baketsu guztiak irtenbide militarera pasa baino lehen haztatu eta baztertzearen zentzuan ulertzen, baizik eta jada efektuak sortu dituen ekintzari erantzuteko neurrien benetako beharrezkotasun eta egokitasunean¹⁴.

Hitz gutxitan esanda, soilik eraso gelditzera bideratuta dauden neurriak har daitezke. Erantzun beharrezkoa denaren markoa gainditzekotan, defentsa legitimoaren figuratik errepresalia armatu hutsera igaroko ginateke.

2) *Proporzionaltasuna*

Doktrinak bi zentzu ezberdinetan ulertu du proporzionaltasuna: batetik, pairatutako erasoaren eta emandako erantzunaren arteko oreka aldarrikatzen duena, eta bestetik, defentsa legitimoaren ekintzaren eta lortu nahi den helburuaren arteko harremanean zentratzen dena.

Azken ikusmolde honek¹⁵, defentsa legitimoak izan beharreko izaera defentsiboa azpimarratzen du, hura egikaritzearen helburu bakarra pairatzen ari den eraso etetea

¹³Baldintza hauek 1837. urteko *Caroline* aferan dute jatorria, zeinetan armada britainiarra Estatu Batuetako lurraldean sartu zen, eta Kanadako matxinoen material belikoa eta itsasontzi bat suntsitu. Britainia Handiaren ustetan, ekintza hau bidezko defentsan oinarrituta burutu zen, prebentzio neurria izanik. Argudio hauen aurrean, Daniel Webster estatu-idazkari amerikarrak zera aldarrikatu zuen: Britainia Handiak burututako ekintzak bidezko defentsaren berehalako beharrari erantzun behar zion. Premiazko egoerak, ez luke denborarik utziko bestelako neurri alternatiboen inguruan hausnartzeko (*British and Foreign State Papers, 1840-1841*, bol. 29., Londres, Ridgway, 1857, 1129 eta hurr. or.).

¹⁴CERVELL HORTAL, María José: *op. cit.*, 137. or. eta Ekintza militar eta paramilitarrak Nikaraguan..., *op. cit.* 122. or., par. 237.

¹⁵Tesi hau defendatzen duten autoreen artean, Olivier CORTEN, Judith GARDAM eta Robert AGO aurki ditzakegu.

izanik. Ondorioz, premiazkotasuna eta proportzionaltasuna estuki elkarloturik agertzen dira, erasoari neurri egoki eta zuhurrean erantzuteko nahitaezko baldintza ezarriz.

3) Berehalakotasuna

Aipatu berri den bezala, defentsa legitimoa eraso konkretu bati erantzuna eman eta hau gelditzera bideratzen den heinean, erantzun hori eraso nolabait “indarrean” dirauen bitartean burutu behar da, jasaten hasten den bezain pronto.

Dena den, berehalakotasunaren baldintza zehaztea ez da beti erraza, eta Estatuaren praktika zein jurisprudentiaren partetik premiazkotasunak eta proportzionaltasunak baino babes gutxiago jaso izan du¹⁶. Izan ere, erantzun militarra emateak bat-batean lor ezin daitekeen prestakuntza logistikoa beharrezkoa du, eta hori dela eta, nahiz eta eraso eta defentsaren artean gertutasuna eskatzen den, berehalakotasunaren eskakizuna era malguan interpretatu ohi da.

4) Behin-behinekotasuna

51. artikulua argi uzten du, interpretazio zabalei atea itxiz: hasiera batean, egoeraren premiazkotasuna dela eta, Estatu erasotutako bere burua defendatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu, baina behin nahitaezko lehen erantzuna emanda, SK-k hartuko du nazioarteko bake eta segurtasuna berrezartzearen eginkizuna. Hau da, defentsa legitimoarako eskubidea SK-k agresioaren biktima izan den Estatuaren ordezkatzeari erabaki eta egokiak irizten dituen neurriak hartzean agortuko da¹⁷.

5) Informatzeko betebeharra

Defentsa legitimoa egikaritu bezain pronto, SK jakinaren gainean jarri beharra dago. NJA-ren baitan iritzi ezberdinak izan dira eskakizun honen garrantziaren inguruan: jada birritan aipatutako 1986ko Nikaraguako aferan, boto partikularren bitartez Schwbel epaileak informatzeko betebeharra baldintza formal hutsa zela aldarrikatu zuen, eskubidearen egikaritzea legitimoari eraginik egiten ez ziona. Iritzi aniztasun honi 1996an amaiera eman zitzaion, NJA-k informatzeko betebeharra premiazkotasun eta proportzionaltasun baldintzekin parekatu zuenean¹⁸.

¹⁶POZO SERRANO, Pilar: “La Carta de las Naciones Unidas y el régimen jurídico del uso de la fuerza: algunos problemas de interpretación actuales”, *Revista del Instituto Español de Estudios Estratégicos*, 1. zk., 2013, 7. or.

¹⁷CERVELL HORTAL, María José: *op. cit.*, 145. or.

¹⁸Arma nuklearren erabileraren edo mehatxu gisa erabiltzearen legezkotasuna, aholku-irizpena, *I.C.J. Reports 1996*, 226. or.

3.3. *Ius in bello eta ius ad bellum*

Indar armatua, 1945ean debekatu zen arte, Estatuak haien gatazkak konpontzeko erabiltzen zuten ondo ezagututako baliabidea izan zen, gerra legez kontrakoa izan zitekeelaren aukera ere planteatu gabe¹⁹. *Bellum iustum* delakoa, hau da, agresio bati erantzuna emateko hasitako gerra justua, teoria onargarria zen. Beste era batera esanda, gerra autotutela mekanismo bezala ulertzen zen, baina Estatu zibilizatuek hura egikaritzeko orduan jarrera beligeranteak neurritara ekartzen zituzten arauak errespetatu behar zituzten²⁰.

Indarra erabiltzerako orduan jarraitu beharreko arauen harira, *ius in bello* eta *ius ad bellum* kontzeptuak ezberdindu beharra dago. Lehenengoak indarraren egikaritza berari aplikagarri zaizkion araei egiten die erreferentzia, eta bigarrenak, indarraren erabilera martxan jartzeko arrazoi legitimoak biltzen ditu. *Bellum iustum* teoriak indarra eta onargarritasuna zuenean, ezberdintasun honek ez zuen garrantzi handirik, indarkeria salbuespena izan beharrean baliabide bat gehiago izanik ez baitzegoen, gehienetan, *ius ad bellum* aztertzeke beharrik.

Nahiz eta ezberdintasun hau indarraren erabilera debekatu zen arte garrantzizkoa ez bihurtu, honen lehendabiziko teorizazio espresua XIX. mendean landu zen Kant filosofoaren eskutik²¹. Berak erabilitako terminoak hurrengokoak izan ziren:

- (1) *The Right of going to War*, gerrara joateko eskubidea (*ius ad bellum*).
- (2) *Right during War*, Zuzenbidea gerra garaian (*ius in bello*).

Nazio Batuen Gutunak gerra eskubidea eraentzen duten arauetan aldaketa substantziala suposatu zuen, eta honek halaberrez defentsa legitimoaren figuran ere eragina izan du²². Ondorioz, 1945. urteaz geroztik *ius ad bellum*, teorikoki, defentsa legitimoaren egikaritzara mugatuko litzateke, hura baita indarraren erabileraren debekuak Estatuentzat onartzen duen salbuespen legitimo bakarra²³. Bestalde, *ius in bello* nazioarteko zuzenbide

¹⁹CERVELL HORTAL, María José: *op. cit.*, 22. or.

²⁰CASANOVAS Y LA ROSA, Oriol eta RODRIGO HERNÁNDEZ, Ángel J.: *Compendio de derecho internacional público*, Tecnos, Madril, 2015⁴, 406. or.

²¹Ikusi KANT, Immanuel: *The Philosophy of Law. An Exposition on the Fundamental Principles of Jurisprudence as the Science of Right*, 1887.

²²CONSIGLI, José A. eta LAVOPA, Federico: “Dos aspectos de la legítima defensa frente a la amenaza terrorista”, *Anuario Argentino de Derecho Internacional*, XV zk., 2006, 26. or.

²³Segurtasun kolektiborako sistema indarraren erabileraren debekuaren salbuespena da ere, baina hemen azpimarratzen dena Estatuak indibidualki burutu ditzaketekintza armatuak dira, arrazoi legitimo bakarra bidezko defentsa izanik.

humanitarioarekin lotu eta honen sinonimotzat hartu izan da, gatazka armatuak eta honen parte zuzena ez diren pertsonak babesteko arauak eraentzen dituen nazioarteko zuzenbidearen adarra da eta.

Beraz, gaur egun oso garrantzitsua da *ius ad bellum* eta *ius in bello*-ren arteko ezberdintasunean erreparatzea. Izan ere, gerra justu bat era bidegabean eta gerra ez justu bat arauak zorrotz betez borrokatzea posible da²⁴; *ius ad bellum*-en arabera zilegia den jarrera bat aurrera eramateak ez du nahitaz *ius in bello* arauak errespetatzea ekarriko, eta alderantziz. Indarraren erabileraren araubide juridikoa Estatu erasotzak erasotzailearekiko duen maila goreneko eskubide batean oinarritzen den bitartean, gerrarako bitarteko edo metodoen araubide juridikoa beligeranteen arteko parekotasun printzipioan eta elkarri zor dieten errespetu printzipioan oinarritzen da²⁵.

Ius in bello oinarritzat dituen parekotasun eta errespetu printzipioak Estatuaren artean gertatzen diren gatazkei aplikagarri zaizkiela argi dago, baina onargarria al da Estatuak ez den beligerante bati (talde terrorista bati, esaterako) nazioarteko zuzenbide humanitarioak eskaintzen dituen nolabaiteko “abantailak” aplikatzea? Aktore ez-estatal eta Estatuaren arteko gatazka armatuak geroz eta ugariagoak dira, nazioarteko zuzenbidea supostu berrietara moldatu behar delarik.

4. MEHATXU BERRIAK: NAZIOARTEKO TERRORISMOA

Nazioarteko terrorismoa egunerokotasunaren parte bilakatu eta nazioarteko gatazken nukleoan kokatu den arazo kriminal zein soziala da, jihadismoa bezalako fenomeno gero eta indartsuagoi era koordinatu eta bateratuan aurre egiteko beharra sortu duena. Honen harira, nazioarteko zuzenbideak Estatuak gobernatzeko zuzeneko mekanismo gisa hartu duen garrantzia azpimarratzekoa da, garai bateko Estatuaren subiranotasunak Estatuaz gaindiko erakundearen subiranotasunaren mesedetan neurri batean amore eman du eta²⁶. Hitz gutxitan esanda, mehatxu berrien aurrean (eta bereziki terrorismoaren kasuan, zeinek

²⁴WALZER, Michael: *Just and Unjust Wars. A Moral Argument with Historical Illustrations*, Basic Book Classics, New York, 1997, 21. or.

²⁵CANIZZARO, Enzo: “Contextualising proportionality: *jus ad bellum* and *jus ad bello* in the Lebanese war”, *International Review of the Red Cross*, 88. bol., 864. zk., 2006, 782. or.

²⁶BUENO ARÚS, Francisco: *Terrorismo: Algunas cuestiones pendientes*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2009, 122. or.

azken boladan nazioarteko izaera ukaezina hartu duen), Estatuak nazioarteko komunitatean bilatu dute erantzuna.

4.1. Nazioarteko terrorismoaren kontzeptua

Nahiz eta nazioarteko terrorismoa ugari erabiltzen den gaurkotasan handiko terminoa izan, NBE-k ez du honen definiziorik eman, eta ez dago honen inguruko adostasun doktrinalik. Izan ere, aurreiritzi ideologikoen fenomeno honen edozein deskribapen saiakera baldintzatzen dute, baita horri buruzko edozein judizio ere²⁷. Gatazka doktrinala alde batera utzita, definizio bateratuaren faltak errealitate praktikoa arazo ugari ekar ditzake, Estatu batean terrorismo gisa kalifikatzen dena beste batean ez duelako zertan horrela izan beharrik, nazioarteko kooperazioa edota koordinazioa oztopatuz.

Kontzeptua zehaztu gabe geratu da, baina NBE-k nazioarteko terrorismoa bere osotasunean tinko gaitzetsi du eta nazioarteko segurtasunaren kontrako mehatxu gisa kalifikatu ere²⁸. Horrela kalifikatzeak izan dezakeen sinbolismoaz aparte, efektu praktikoa oso garrantzitsuak dira nazioarteko terrorismoaren aurka VII. Kapituluaren aurreikusitako mekanismoak martxan jartzea ahalbidetzen baitu. Bestalde, egungo krimen larrienen artean kokatzen den arren, Nazioarteko Gorte Penalak jazar ditzakeenetatik kanpo geratzen dela azpimarratzekoa da²⁹. Ondorioz, Estatu bakoitzeko auzitegiak izango lirateke terrorismoa pertsegitzearen arduradun, nahiz eta kasu askotan epaitu beharreko ekintzek Estatuaz gaindiko garrantzia hartuko duten.

Edozein kasutan, ekintza terroristak jazarri eta prozesatzea Estatuaren barne araudiaren markoan kokatzeak ez du esan nahi nazioarteko komunitatearen partetik gai honekiko utzikeria eman denik. Are gehiago, erakunde supranazionalen fenomeno terroristari aurre egiteko ahaleginak biziagotu dituzte, SK-k emandako ebazpenekin batera Hitzarmen

²⁷HINOJOSA MARTÍNEZ, Luis M.: *La financiación del terrorismo y las Naciones Unidas*, Tecnos, Madril, 2008, 53. or.

²⁸Nahiz eta atentatu espezifikoak gaitzetsi zituzten zenbait ebazpen aurretiaz eman, nazioarteko terrorismoa bere osotasunean eta modu orokor batean kondenatzen duen lehendabiziko ebazpena SK-ren 1269 (1999) Ebazpena dugu. Nazioarteko bake eta segurtasunaren kontrako mehatxu gisa kalifikatzea 1189 (1998) Ebazpenaren bitartez eman zen, eta 1377 (2001) Ebazpenak XXI. mendeko mehatxu larrienen artean kokatzen du nazioarteko terrorismoa.

²⁹1998ko Erromako Tratatuak Nazioarteko Gorte Penalera eramaten diren krimenak biltzen ditu 5. artikuluan, eta zerrendak *numerus clausus* izaera du: genozidioa, gizateriaren kontrako krimenak, gerra krimenak eta agresio krimenak.

anitz aurki daitezkeelarik³⁰. Aipatutako bitarteko guzti hauek Estatuak jarraitu beharreko agenda legislatiboa markatu dute³¹.

4.2. Defentsa legitimoa aktore ez-estatalen aurrean

Nazioarteko terrorismoaren kontzeptu soila finkatzea gai polemikoa bada, gatazkak are dimentsio sakonagoa hartzen du atentatuaren aurrean erantzun egokienak definitzerako orduan. Nola defenda daitezke Estatuak ekintza hauek pairatzekotan? Zer esanik al du defentsa legitimoaren figurak nazioarteko terrorismoaren supostuan?

Gutunaren 51. artikuluan aurreikusitako mekanismoa aktore ez-estatalen aurka erabil daitekeen nazioarteko praktikan eta doktrina internazionalistan azken hamarkadetan gehien eztabaidatutako gaien artean kokatu da³². NJA-ren iritziari erreparatzekotan, honek, momentuz, interpretazio murriztailearen alde egin du behin baino gehiagotan³³: defentsa legitimoa egikaritzeko nahitaezkoa den eraso edo agresioa, printzipioz, Estatu batek burututakoa izan behar da, eta hala zehazten du ere arestian aipatutako 3314 (XXIX) Ebazpenak.

Dena den, azpimarratzekoa da eraso baten egikaritzak jatorri estatala duela kalifikatzeko, ez dela nahitaezkoa zuzenean Estatu horrek agresioa burutzea. Izan ere, badaude zeharkako eran erantzukizun hori Estatu bati esleitzea ahalbidetzen duten inguruabarrak. Nazioarteko terrorismoari gagozkiolarik, Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak eraturitako Estatuaren legez kontrako nazioarteko egintzetatik eratorritako erantzukizunari buruzko Artikuluen Proiektuaren 8. artikulua arabera³⁴, Estatu bat erantzule litzateke pertsona edo talde batek, Estatuaren agindu edo zuzendaritza pean burututako egintzen aurrean. Kasu honetan, egozgarritasuna frogatzea zaila izan ohi da, talde irregular horien gainean Estatuak izandako kontrola edo horien ekintzen inguruko oniritzia egiaztatuz

³⁰Besteak beste, aipatzekoak dira Bonben Bitartez Burututako Atentatuak Zapaltzeko Nazioarteko Hitzarmena (1997), Terrorismoaren Finantzaketa Zapaltzeko Nazioarteko Hitzarmena (1999) Terrorismoaren Kontrako Hitzarmen Interamerikarra (2002) eta Terrorismo Nuklearreko Ekintzak Zapaltzeko Nazioarteko Hitzarmena (2005).

³¹SAIZ GARITAONANDIA, Alberto: "El concepto 'terrorismo' desde la perspectiva de las Naciones Unidas y su proyección penal y procesal a nivel interno" in MORENO CATENA, Víctor Manuel (zuz.) eta SERRANO ARNÁIZ, Amaya (zuz.): *El Estado de Derecho a prueba. Seguridad, libertad y terrorismo*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2017, 64. or.

³²CASANOVAS Y LA ROSA, Oriol eta RODRIGO HERNÁNDEZ, Ángel J.: *op. cit.*, 418. or.

³³Besteak beste, aurretiaz aipatutako 2004an Palestinako harresiaren legezkotasunaren aferan eta 2005ean Kongoren aferan hartzen du jarrera hau.

³⁴Artikuluen Proiektu hau Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordeak onartu zuen 2001. urtean, 53. saio aldian (A/56/10), BN-k 56/83 Ebazpenaren bitartez erantsitakoa.

beharra dago eta. Legez kontrako egintza hori eraso armatu bat izatekotan, zera zehaztu du NJA-k:

“(...) an armed attack must be understood as including not merely action by regular armed forces across international border, but also ‘the sending by or on behalf a State of armed groups, irregulars or mercenaries, which carry out acts of armed force against another State of such gravity as to amount to’ (inter alia) an actual armed attack conducted by regular forces, ‘or its substantial involvement therein’. This description, contained in Article 3, paragraph (g) of the Definition of Aggression annexed to General Assembly resolution 3314 (XXIX), may be taken to reflect customary international law”³⁵.

Hortaz, terroristak Estatuaren egituretatik kanpo kokatu ohi diren talde irregularrak izanik, nolatan izan daiteke Estatu bat erantzule? Alde batetik, azaldu berri den bezala talde terroristaren egintza Estatu horri egozgarri izan behar zaio, eta bestetik, defentsa legitimoa egikaritu ahal izateko, egintza horrek eraso armatu gisa kontsideratzeko larritasun nahikoa izan behar du.

Esan den moduan, Estatuak talde irregularraren gainean izan dezaketen kontrola frogatzea konplexua eta gatazkatsua da. Abiapuntu gisa, organizazio terroristen jatorrizko lurraldea hartu izan da, nahitaez, fisikoki nonbaiten kokatu beharra dute eta. Estatu “anfitrioi” eta talde terroristaren arteko harremana aztertuz, Consigli eta Lavopa autoreek jarduera terroristen gaineko erantzukizuna Estatu bati hedatzea (ala ez) ekarri dezaketen hiru kasu ezberdintzen dituzte³⁶:

1) Estatu ahulak

Estatu ahulak bere lurraldean kokatzen den talde terroristaren jarduerak kontrolatzeko beharrezko ahalmena ez duten Estatuak lirateke. Kasu honetan, aipatutako egozgarritasun hori ez litzateke emango, ez baitago talde irregularraren gaineko inolako kontrolirik.

Ondorioz, eraso terrorista baten ostean defentsa legitimoa egikaritzeko eskubidea aldarrikatzekotan, Estatu erasotuak ezingo luke Estatu ahularen kontrako ekintzarik bideratu, ez baita Estatu batek burututako agresiorik eman. Estatu ahula laguntzearen eta nazioarteko terrorismoa nazioarteko bake eta segurtasunaren aurkako mehatxu bezala sailkatu izan dela kontuan hartuta, segurtasun kolektiborako sistema martxan jartzea

³⁵Ekintza militar eta paramilitarrak Nikaraguan..., *op. cit.*, 93. or. par. 195.

³⁶CONSIGLI, José A. eta LAVOPA, Federico: *op. cit.*, 37-43 or.

aukera egokia litzateke, hala eta guztiz ere kasu honetan defentsa legitimoaren egikaritzea indibidualerako tokirik ez dagoela nabarmenduz.

2) *Estatu konplizeak*

Arestian aipatutako 2625 (XXV) Ebazpenari jarraiki, Estatu ororen eginbeharra da beste Estatu batean gerra zibileko egintzak edo terrorismo-egintzak antolatzeari, bultzatzeari, haietan laguntzeari edo parte hartzeari, edo bere lurraldean halako egintzak egitera bideratutako jarduerak baimentzeari uko egitea.

Ildo berean, 2131 (XX) Ebazpenak zera zehazten du: *“Todos los Estados deberán también abstenerse de organizar, apoyar, fomentar, financiar, instigar o tolerar actividades armadas, terroristas o subversivas encaminadas a cambiar por la violencia el régimen de otro Estado, y de intervenir en la guerra civil de otro Estado”*.

Beraz, Estatu batek bere lurraldean jarduera terroristak toleratzea nazioarteko obligazio bat urratzea dakar, legez kontrako egintza batean bihurtuz. Dena den, nazioarteko urraketa baten ondorioz indarra erabiltzea ez dago orokorrean justifikatuta, eta hura izan zen, esaterako, 1949. urtean NJA-k Korfu itsasartearen aferan izandako jarrera³⁷. Hitz gutxitan esanda, urraketak printzipioz ekarriko lukeena Estatuaren nazioarteko erantzukizuna litzateke.

Hala ere, nahiz eta hasiera batean Estatu anfitrioiaren urraketak suposatuko lukeena nazioarteko erantzukizuna izan, badago planteamendu honen baitan indarraren erabilera justifikatuko lukeen interpretazioa. 1992. urtean, SK-k zera ezarri zuen 748 (1992) Ebazpenean: *“De conformidad con el principio enunciado en el párrafo 4 del Artículo 2 de la Carta de las Naciones Unidas, todo Estado tiene el deber de abstenerse de organizar o instigar actos de terrorismo en otro Estado, ayudar a tales actos, participar en ellos o consentir actividades organizadas en su territorio para la comisión de tales actos, cuando tales actos impliquen la amenaza o el uso de la fuerza”*. Era esplizituan, jarduera terroristen aurkako neurririk ez hartzea Gutunaren 2.4 artikuluan aurreikusitako indarraren erabileraren debekuarekin lotzen du, VII. Kapituluak aplikatzeari atea irekiz.

Estatu “konplize” horien aurka indarra erabiltzea legitimatzearen interpretazioa *IIS* bezala ezagutzen diren atentatuen harira SK-k emandako 1373 (2001) Ebazpenarekin

³⁷Korfu itsasartearen kasua (Britainia Handiko Erresuma Batua eta Iparraldeko Irlanda v. Albania), epaia, *I.C.J. Reports 1949*, 4. or.

erabat egonkortu zen, lehen aldiz defentsa legitimorako eskubidea beste Estatu batek terrorismoari emandako babesarekin lotu zen eta, babes hori “aktiboa” zein “pasiboa” izan zitekeelarik³⁸. Estatu Batuek atentatu hauei aurre egiteko hartutako jarrerak defentsa legitimoaren figura zein nazioarteko terrorismoaren aurkako borroka ulertzeko era goitik behera eraldatu zuen, lan honen 5. atalean aztertuko den bezala.

3) *Estatu terroristak*

Azken kasu hau Estatu anfitrioiari erantzukizuna egotzi beharra argien uzten duena da, Estatua bera talde terrorista da eta. Horretarako, Estatuak terroristen ekintzen gaineko kontrol efektiboa izan beharko luke, ondorioz azken hauek burututako eraso armatuen gaineko egiletza bere eginez.

Gauzak horrela, Estatu anfitrioia zuzenean erasotzaile gisa identifikatuko litzateke, haren kontra Estatu erasotzak defentsa legitimoa egikari dezakeelarik (betiere arestian azaldutako *ius in bello* edo nazioarteko zuzenbide humanitarioak ezarritako arau eta mugak errespetatu beharko lituzke). Talde terrorista eta hura kokatuta dagoen Estatua sinonimotzat harturik, defentsa legitimoaren figurak aurreikusten duen supostu klasikoan egongo ginateke, gatazkaren parte hartzaile diren aktore biak izaera estatalekoak baitira.

5. 2001eko IRAILAREN 11ko ATENTATUAK: NORABIDE ALDAKETA

11S edo *9/11* bezala ezagutzen ditugun atentatuak³⁹ terrorismoaren aurkako borrokan zein defentsa legitimoaren figura ulertzeko eran inflexio-puntua izan zirela esan daiteke. Estatu Batuetako George W. Bush presidentek estrategia erabat aldatzea erabaki zuen: kontraterrorismoari ekin zion, edo beste era batera esanda, segurtasunetik defentsara (eta erasora) pasa zen. Ordura arte delitu larria kontsideratzen zena eta horrela izanda FBI-k

³⁸CONSIGLI, José A. eta LAVOPA, Federico: *op. cit.*, 42. or.

³⁹2001eko irailaren 11ko atentatuek 2.996 hildako eta 6.000 zauritu baino gehiago eragin zituzten. Al-Qaeda erasoak aurrera eramateko lau hegazkin komertzial bahitu zituen. Bi hegazkin New Yorkeko World Trade Center-era bidali zituen, eta Dorre Bikien suntsipena erabatekoa izan zen. Hirugarren hegazkinak Virginian kokatutako Pentagono eraikinaren kontra egin zuen, non Estatu Batuen Defentsa Departamentua finkatuta dagoen. Laugarren hegazkinak Washington D.C. hirian kokatutako Estatu Batuetako Kapitolioa zuen helmugatzat, baina Shanksville (Pennsylvania) hiritik gertu erori zen, Washingtonetik 200 kilometrotara.

ikertu eta justizia federalaren sistemak auziperatzen zuena, benetako *casus belli* bat izatera pasa zen⁴⁰.

5.1. Nazioarteko terrorismoaren kontrako *gerra*

Atentatuen gertatu eta egun batzuk geroago, 2001eko irailaren 20an zehazki, Bush presidenteak “Terrorismoaren kontrako gerra”-ren beharra defendatu (eta hura deklaratu) zuen Estatu Batuen Kongresuaren aurrean⁴¹. Terrorismoa borrokatzeko pertzepzio berri hau, ingelesez *War on Terror* deiturikoa, aldaketa sakonak ekarriko zituen nazioarteko bake eta segurtasuna bermatzeko mekanismoetan, *si vis pacem para bellum* aforismoa hitzez hitz aintzat harturik.

35 minutu iraun zituen hitzaldi historiko horrek aurrerantzean emango zen terrorismoaren kontrako borrokari forma eman zion. Bush-ek atentatuak gerra ekintza moduan (bere hitzetan, *act of war*) kalifikatu, atentatuen ustezko egile izan zen al-Qaeda talde terrorista Afganistango Estatuan kokatutako erregimen talibanarekin erlazionatu, eta nazioarteko kooperazioa martxan jartzeko deia egin zuen:

“The leadership of al Qaeda has great influence in Afghanistan and supports the Taliban regime in controlling most of that country. In Afghanistan, we see al Qaeda's vision for the world. (...)

Our enemy is a radical network of terrorists, and every government that supports them. Our war on terror begins with al Qaeda, but it does not end there. It will not end until every terrorist group of global reach has been found, stopped, and defeated. (...)

And we will pursue nations that provide aid or safe haven to terrorism. Every nation, in every region, now has a decision to make. Either you are with us, or you are with the terrorists. From this day forward, any nation that continues to harbour or support terrorism will be regarded by the United States as a hostile regime. (...)

I have a message for our military: Be ready. (...) This is not, however, just America's fight. And what is at stake is not just America's freedom. This is the world's fight. This is civilization's fight. This is the fight of all who believe in progress and pluralism, tolerance and freedom”.

⁴⁰ALCOCEBA GIL, Juan Manuel: “Contraterrorismo en el siglo XXI: de ‘seguridad’ a ‘defensa’”, in MORENO CATENA, Víctor Manuel (zuz.) eta SERRANO ARNÁIZ, Amaya (zuz.): *El Estado de Derecho a prueba. Seguridad, libertad y terrorismo*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2017, 124. or.

⁴¹Hitzaldi osoa hurrengo estekan entzun eta irakurgai: <https://www.americanrhetoric.com/speeches/gwbush911jointsessionspeech.htm>, 2020ko azaroaren 24an ikusia.

Bush presidentearen ikuspuntuak ez zuen soilik Estatu Batuen barne araudian eragin⁴². Ekintza terroristek nazioarteko osagai garrantzitsua zuten, eta honek nahitaez nazioarteko komunitateari eragin zion, *War on Terror* delakoa mundu osora esportatu zelarik, bereziki mendebaldeko gizartean errotuz. Presidente estatubatuarrek herrialdeen arteko elkartasuna aldarrikatu zuen, nazioarteko terrorismoak guztioi eragiten gaituen nazioarteko bake eta segurtasunaren aurkako mehatxu gisa jaso izan duen kalifikazioarekin lotu daitekeena: *“Perhaps the NATO Charter reflects best the attitude of the world: An attack on one is an attack on all”*.

5.2. Defentsa legitimoa Afganistanen aurka

Azaldu berri bezala, Estatu Batuak 2001eko atentatuen aurrean nazioarteko terrorismoa borrokatzeko beharrezko neurri guztiak hartzeko prest agertu zen, indar armatua erabiltzea barne. Gutunaren 2.4 artikulua ezarritako debekua presente izanik, atentatuak agresio bezala kalifikatu eta defentsa legitimoa egikaritzeko eskubidea aldarrikatu zuten, hura Afganistango lurraldean aurrera eramateko asmoa adieraziz. SK-k ebazpen anitz argitaratu zituen gaiaren inguruan, aktore ez-estatalen aurkako defentsa legitimoari lotutako aurrekari garrantzitsuak bihurtuko zirenak.

Ebazpen aipagarrien artean 2001eko irailaren 12ko 1368 (2001) eta irailaren 28ko 1373 (2001) Ebazpenak ditugu, zeinek defentsa legitimoa egikaritzeko SK-ren oniritzi gisa interpretatu ziren. Estatu Batuetako erantzunari defentsa legitimoa aplikatzeko zailtasunak gorabehera, SK-k atentatuak gertatu eta berehala onartutako bi ebazpen hauek figurari erreferentzia esplizitua egin zioten. Dena den, esku-hartze amerikarra babesteko edo justifikatzeko oinarri gisa aurkeztu diren arren, eskubide horren existentzia ezagutaraztera mugatzen dira, eta, gainera, Hitzaurrean egiten dute⁴³. NBE-tik eratorritako adierazpenez gain, kontuan hartu beharra dago NATO-ko kideek atentatuak eraso armatu bezala kalifikatu zituztela eta Washingtoneko Tratatuen 5. artikulua berehala martxan jartzea aldarrikatu zutela⁴⁴:

⁴²Barne araudi amerikarrean aipatzekoak dira, besteak beste, 2002. urtean sortutako gobernu federalaren segurtasun departamentua (*The Office of Homeland Security*, gurean Ministerio baten baliokide izango litzatekeena) eta 2001eko *USA Patriot Act* maila federaleko legea, zeinaren bitartez Estatuaren kontrol ahalmena izugarri handitu zen, eskubide konstituzionalen ordainetan.

⁴³CERVELL HORTAL, María José: *op. cit.*, 172. or.

⁴⁴Ipar Atlantikoko Tratatua, Washington DC, 1949. Testu osoa hurrengo estekan irakurgai: https://www.nato.int/cps/fr/natohq/official_texts_17120.htm?selectedLocale=es, 2020ko abenduaren 1ean ikusia.

“Las Partes acuerdan que un ataque armado contra una o más de ellas, que tenga lugar en Europa o en América del Norte, será considerado como un ataque dirigido contra todas ellas, y en consecuencia, acuerdan que si tal ataque se produce, cada una de ellas, en ejercicio del derecho de legítima defensa individual o colectiva reconocido por el artículo 51 de la Carta de las Naciones Unidas, ayudará a la Parte o Partes atacadas, adoptando seguidamente, de forma individual y de acuerdo con las otras Partes, las medidas que juzgue necesarias, incluso el empleo de la fuerza armada, para restablecer la seguridad en la zona del Atlántico Norte. Cualquier ataque armado de esta naturaleza y todas las medidas adoptadas en consecuencia serán inmediatamente puestas en conocimiento del Consejo de Seguridad. Estas medidas cesarán cuando el Consejo de Seguridad haya tomado las disposiciones necesarias para restablecer y mantener la paz y la seguridad internacionales”.

Herrialde ugarik kalifikazio joera bera jarraitu zuten. Egia da jarrera horietako askok hain gertaera hunkigarriak gertatu eta berehala hartu zirela, eta, beraz, teknika juridikoko eskema zorrotzetan oinarritu beharrean, ziurrenik izaera politikoko arrazoibide edo erreakzioei erantzun zieten gehien bat⁴⁵.

SK-ren markora itzuliz, lehendabizi aipatutako 1368 (2001) Ebazpenak izaera orokorra du, nazioarteko terrorismoa gaitzetsi⁴⁶ eta atentatuei erantzuteko “beharrezko neurri guztiak” hartzeko asmoa adieraztera mugatuz⁴⁷.

1373 (2001) Ebazpena, aldiz, ebazpen konplexu eta luzeagoa da, Gutunaren VII. Kapituluaren baitan neurri espezifikokoak garatu zituen. Neurri horiek, besteak beste, hurrengokoak dira: ekintza terroristen finantzaketa saihestu eta delitu bezala tipifikatzea⁴⁸, nazioarteko lankidetzaren martxan jarri eta terrorismoa jazartzeko Estatu arteko informazio fluxua sustatzea, talde terroristen mugikortasuna zailtzeko mugetan kontrol eraginkorrak ezartzea, nazioarteko terrorismoari buruzko hitzarmen eta protokoloetara atxikitzea, nazioarteko zuzenbide zein barne legediari jarraiki neurri

⁴⁵SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, Luis Ignacio: “Una cara oscura del derecho internacional: legítima defensa y terrorismo internacional”, *Cursos de derecho internacional y relaciones internacionales de Vitoria-Gasteiz/Vitoria-Gasteizko nazioarteko zuzenbide eta nazioarteko harreman ikastaroak*, 2004, 284. or.

⁴⁶Aipatzekoa da SK-k atentatuak gertatu eta hurrengo egunera adierazitako gaitzespenaz aparte, BN-k berdin jokatu eta 56/1 Ebazpenaren bitartez irailak 11ko ekintza terroristekiko kondena tinkoa adierazi zuela.

⁴⁷“1. Condema inequívocamente en los términos más enérgicos los horrendos ataques terroristas que tuvieron lugar el 11 de septiembre de 2001 en Nueva York, Washington, D.C. y Pennsylvania, y considera que esos actos, al igual que cualquier acto de terrorismo internacional, constituyen una amenaza para la paz y la seguridad internacionales; (...) 5. Expresa que está dispuesto a tomar todas las medidas que sean necesarias para responder a los ataques terroristas perpetrados el 11 de septiembre de 2001 y para combatir el terrorismo en todas sus formas, con arreglo a las funciones que le incumben en virtud de la Carta de las Naciones Unidas;”.

⁴⁸Nazioarteko terrorismoaren finantzaketaren aurkako neurrietan sakontzeko, ikusi 1999ko abenduaren 9ko Terrorismoaren Finantzaketa Zapaltzeko Nazioarteko Hitzarmena eta SK-ren 2253 (2015) Ebazpena.

egokiak hartzea... Neurri horietaz aparte, SK-k ebazpen honen aplikazioa berma zedin sortutako terrorismoaren kontrako Batzordea aipatzekoa da.

Beraz, ebazpen hauek justifikaziotzat hartuz, Estatu Batuek pairatutako atentatuei erantzuteko Afganistanen ekintza armatuak burutzeari ekin zioten, defentsa legitimoa eta nazioarteko terrorismoaren arteko harremana finkatuz. Testuinguru honetan, harreman hori erasoaren intentsitatean oinarritu beharko litzateke, Estatu bati egozgarriak izan dakizkiokeen partikularrek burututako egintzen ikuspegia aintzat hartuta⁴⁹. Kasu honetan, ustez al-Qaeda talde terroristak burututako ekintzak Afganistango Estatuarekin lotuta, atentatuak gertatu eta 26 egun geroago⁵⁰, 2001eko urriak 7an, Estatu Batuek erregimen talibanaren amaiera ekarriko zuen gerrari hasiera eman zioten. Afganistango Estatuaren egozgarritasun horren harira, zera adierazi zuen SK-k 2001eko azaroaren 14ko 1378 (2001) Ebazpenean:

“Condenando a los talibanes por haber permitido que el Afganistán fuera utilizado como base para la exportación del terrorismo por la red Al-Qaida y otros grupos terroristas y por haber amparado a Usama Bin Laden, Al-Qaida y otros asociados y, en ese contexto, respaldando los esfuerzos del pueblo afgano por reemplazar al régimen talibán”.

Beste era batera esanda, al-Qaeda Afganistango lurraldean kokatzeak aktore ez-estatal batek burututako egintzak nazioarteko zuzenbidearen subjektu den Estatu bati egozteko baldintza nahikotzat hartu zen, Estatu Batuek horren kontrako defentsa legitimoa egikari zezaten ahalbidetuz. 2001eko atentatuek egozgarritasun baldintzen malgutzea ekarri zuten, ordura arte NJA-k 1986ko Nikaraguako aferaren bitartez aldarrikatutako kontrol eraginkorra frogatzearen baldintza baztertuz. Dena den, nahiz eta 1378 (2001) Ebazpenak erregimen talibana gaitzetsi, SK-k ez zuen espresuki Estatu Batuek talibanen aurka indar armatua erabil zezaten “baimendu”⁵¹.

Talibanek ez zuten Afganistango lurraldea osotasunean kontrolatzen, eta ez zen lortu ekintza konkretuak aurrera eramateko instrukzio edo aginduen existentzia behar bezala frogatzea⁵². Estatu Batuek eta Erresuma Batuak ikerketak burutu zituzten, eta azken honek 2001eko urriaren 4an argitaratutako dokumentuan, *Responsibility for the terrorist*

⁴⁹REGUEIRO DUBRA, Raquel: *op. cit.*, 339. or.

⁵⁰Atentatuen eta Estatu Batuen erantzunaren artean egondako denborak bidezko defentsa egikaritzeko baldintza den berehalakotasun eskakizuna era malguan interpretatzeari atea irekitzen dio, operazio militarrek ezin baitira egun batetik bestera prestatu.

⁵¹PAUST, Jordan J.: “Use of Armed Force against Terrorists in Afghanistan, Iraq, and beyond”, *Cornell International Law Journal*, 35. bol., 3. zk., 6. art., 545. or.

⁵²CERVELL HORTAL, María José: *op. cit.*, 214. or.

atrocities in the United States, atentatuak al-Qaedak prestatu zituela deklaratu zuen⁵³. Hala eta guztiz ere, Erresuma Batuak ez zuen inoiz erregimen talibana zuzenean akusatu, nahiz eta bi estrukturen arteko harremanaren existentzia onartu.

Laburbilduz, 1368 (2001) eta 1373 (2001) Ebazpenek defentsa legitimoarako eskubidea aipatzen duten arren, horren inguruko erreferentziek izaera abstraktua eta orokorra dute, eta Gutunaren VII. Kapituluako testuinguru espezifikoa begira, ez zaizkio ez nazioarteko bakea urratzeari ez agresioari aipamenik egiten⁵⁴. Ondorioz, Estatu Batuek egikaritutako “defentsa legitimoa” Gutunean ezarritako gidalerroak alde batera utziz eman zen, aldebakarreko jarrera hartuz eta nazioarteko zuzenbideak ezarritako muga lausoak gaindituz. Gainera, apurtutako muga horiek ez ziren defentsa legitimoa aplikatzeko *ius ad bellum* eskakizunetara mugatu. Izan ere, jakina da Estatu Batuen tropa armatuek ez zutela nazioarteko zuzenbide humanitarioa oso presente izan Afganistanen burututako operazioetan, bereziki populazio zibilean eragindako kalteei erreparatuta.

Lex lata ikuspuntutik aztertuz, erasoak ez zuen jatorria Estatu batean izan, atentatuak ez ziren (*prima facie* behintzat) eraso armatua konfiguratzeko duen 3314 (XXIX) Ebazpenarekin bat etortzen, eta ez ziren, edonola ere, beharrezkotasun eta proportzionaltasun baldintzak bete⁵⁵. Doktrina espainiarra, orokorrean, bereziki kritikoa izan da Afganistango gerra legitimatzeko defentsa legitimoaren figura erabiltzearekin⁵⁶.

5.3. 2003, Irak: defentsa legitimo prebentiboaren doktrina

Estatu Batuek argi utzi zuten 2001eko atentatuen ostean jarraituko zuten estrategia: “*Our best defense is a good offense*”⁵⁷. Beste era batera esanda, eraso armatu bat jasan baino lehen neurriak hartzeko eskubidea aldarrikatu zuten, defentsa legitimo “prebentiboa” delakoaren doktrina finkatuz. Nahiz eta Estatu Batuak doktrina honen sortzailatzat hartu

⁵³Dokumentua hurrengo estekan irakurgai: <https://fas.org/irp/news/2001/11/ukreport.html>, 2020ko azaroaren 30ean ikusia.

⁵⁴SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, Luis Ignacio: *op. cit.*, 272. or.

⁵⁵CERVELL HORTAL, María José: *op. cit.*, 171. or.

⁵⁶Ikusi, besteak beste, CALDUCH CERVERA, Rafael: “La incidencia de los atentados del 11 de septiembre en terrorismo internacional”, *REDI*, 53. bol., 1 eta 2 zk., 2001, 173-204 or.; GONZÁLEZ VEGA, Javier A.: “Los atentados del 11 de septiembre, la operación Libertad duradera y el derecho de legítima defensa”, *REDI*, 53. bol., 1 eta 2 zk., 247-272 or.; GUTIERREZ ESPADA, Cesáreo: “¿No cesaréis de citarnos lees viendo que ceñimos la espada? A propósito del 11 S”, *ADI*, 17. bol., 2001, 25-38 or.; RAMÓN CHORNET, Consuelo: “La lucha contra el terrorismo internacional después del 11 de septiembre de 2001”, *REDI*, 53. bol., 1. zk., 2001, 273-288 or.; REMIRO BROTONS, Antonio: “Terrorismo, mantenimiento de la paz y nuevo orden”, *REDI*, 53. bol., 1. zk., 2001, 125-171. or.

⁵⁷*National Security Strategy (NSS)*, 2002, 6. or. Dokumentu osoa hurrengo estekan irakurgai: <https://2009-2017.state.gov/documents/organization/63562.pdf>, 2020ko azaroaren 30ean ikusia.

izan diren, nozio hau planteatutako bestelako zenbait aitzindari aipatzekoak dira, besteak beste, Kubako misilen krisia (1962), Ekialde Hurbileko sei eguneko gerra (1967) eta Israelen burututako Osirak-eko errektore nuklearraren bonbardaketa (1981)⁵⁸.

Afganistanen 2001ean ekintza armatuak burutzeko gobernu amerikarrak defentsa legitimoaren figura tradizionala baliatu zuen bitartean (atentatuak eraso armatu gisa kalifikatzeko aktore ez-estatalen inguruko baldintzak izugarri malgutu zituzten arren), 2003. urtean Irakeko gerra abian jartzeko bestelako argudioak bilatzea beharrezkoa izan zen, ez baitzen defentsa legitimoa martxan jartzeko aitzakiazat har zitekeen ekintza terroristarik existitu.

Arestian azaldu bezala, defentsa legitimoa abiatzeko *conditio sine qua non* aurretiazko eraso armatu edo agresioaren existentzia dugu. Beraz, interpretazio murriztaileak ez lioke defentsa legitimo prebentiboari tokirik utziko: aurretiazko erasoarekiko denborazko konexio barik burututako indarraren erabilera oro (nahiz eta eraso armatua hain zuzen ere existitu izan, baina berehalakotasun printzipioa betetzen ez bada) errepresalia moduan kalifikatu beharko litzateke⁵⁹. Ohiturazko zuzenbideari emandako garrantziaren arabera, indarraren erabilera debekatzen duen printzipioaren mugak murriztaile ala zabalagoak dira⁶⁰. Edonola ere, Gutunak ezarritako erregimena ohiturazko zuzenbideak xedatutakoa baino zurrunagoa da, eta NJA-k ez dio momentuz defentsa legitimoa prebentiboari atea ireki.

2001eko atentatuaren ostean nazioarteko terrorismoa saihesteko beharraren lelo pean, Estatu Batuek eraso armatuaren denborazko osagaiaren inguruko eztabaida berpiztu eta defentsa legitimo prebentiboaren doktrina mahaigaineratu zuten, 2002. urteko irailaren 17an Segurtasun Nazionalerako Estrategia (ingelesez *National Security Strategy*, aurrerantzean NSS) dokumentuaren bitartez formalki aurkeztuz:

“For centuries, international law recognized that nations need not suffer an attack before they can lawfully take action to defend themselves against forces that present an imminent danger of attack. Legal scholars and international jurists often conditioned the legitimacy of preemption on the existence of an imminent threat—most often a visible mobilization of armies, navies, and air forces preparing to attack.”

⁵⁸CONSIGLI, José A. eta LAVOPA, Federico: *op. cit.*, 32. or.

⁵⁹VACAS FERNÁNDEZ, Félix: *El régimen jurídico del uso de la fuerza por parte de las operaciones de mantenimiento de la paz de las Naciones Unidas*, Marcial Pons, Madril-Bartzelona, 2005, 248. or.

⁶⁰CORTEN, Oliver: “The Controversies Over the Customary Prohibition of the Use of Force: A Methodological Debate”, *EJIL*, 16. bol., 5. zk., 2006, 804. or.

We must adapt the concept of imminent threat to the capabilities and objectives of today's adversaries. Rogue states and terrorists do not seek to attack us using conventional means"⁶¹.

NSS-k planteatutako gerra prebentiboak hiru Akilesen orpo planteatzen zituen: lehenik, gobernu estatubatuarrak berak 1837an Caroline aferaren bitartez finkatutako eta nazioarteko komunitateak onartutako defentsa legítimoaren mugen definizioaren aurka agertzen zen; bigarrenik, Nazio Batuen Gutunean ezarritako xedapenenekin zuzenean talka egiten zuen; eta hirugarrenik, doktrinak zein nazioarteko jurisprudentziak konfiguratutako agresio krimenaren baldintzak betetzen zituen⁶². Gainera, ekintza prebentiboaren doktrina amerikarrak terminologia juridiko anglosaxoian erabilitako *preemption* eta *prevention* terminoen arteko nahasmena⁶³ apropos sortu zuen, modu horretan defentsa legítimoa eta agresioa banatzen dituen muga definitzeari uko eginez eta ekintza militarren xede defentsibo eta ofentsiboen arteko bereizketa posible oro ezabatuz⁶⁴.

Ikuspuntu estatubatuarrak sortutako agresioaren elementu tenporalari buruzko eztabaidaren harira, Regueiro Dubra autoreak eraso armatuaren kronologia eta egikaritza graduari erreparatuta defentsa legítimoaren 5 aldaera ezberdintzen ditu⁶⁵:

- 1) *Defentsa legítimo erreaktiboa*: kasu hau figuraren kontzepzio klasikoa litzateke, Gutunaren 51. artikulua ezarritakoarekin erabat bateragarria. Gertatutako eraso armatu bati berehala erantzutean datza.
- 2) *Defentsa legítimo geldiarazlea*: Gutunak ezarritakoarekin bat etorriko litzateke ere. Mota honek hasita dagoen baina oraindik kristalizatu ez den eraso supostua (adibidez, misil bat jaurti denean baina oraindik ez duenean inon talka egin) hartzen du kontuan. Ez litzateke berehalakotasun eta beharrezkotasun baldintzak

⁶¹National Security Strategy (NSS), 2002, 15. or.

⁶²CASTRESANA FERNÁNDEZ, Carlos: "Nueva tesis de defensa colectiva", *Jueces para la democracia*, 50. zk., 2004, 11. or.

⁶³Bi termino hauen arteko ezberdintasunak oso sotilak dira, hizkera arruntean maiz sinonimo bezala erabiltzen direlarik. Nazioarteko zuzenbidearen planoan, *preemption* hitza edozein momentutan gertatzeke dagoen eraso supostuetan erabiliko litzateke. *Prevention*, aldiz, justifikazio lausoagoak dituzten hipotesien markoan kokatzen da: ez dago neurriak hartzea justifikatuko lukeen berehalako eraso jazoko delaren inolako ziurtasunik, oinarria ustezko mehatxu abstraktu bat da, parametro objektiboen bitartez neurtzea oso zaila dena.

⁶⁴PÉREZ GONZÁLEZ, Manuel: "La legítima defensa puesta en su sitio: observaciones críticas sobre la doctrina Bush de la acción preventiva", *REDI*, 2003, 199. or.

⁶⁵REGUEIRO DUBRA, Raquel: *op. cit.*, 186. or.

eta Gutunaren 51. artikulua errespetatzerako orduan arazorik egongo, eraso aribidean dago eta.

- 3) *Aurretiazko defentsa legitimoa*: eraso ez da oraindik hasi, baina prestaketak martxan daude. Berehalakotasun baldintza bete ahal izateko erasoaren hurbiltasunaren benetako ezagutza beharrezkoa da. Hortaz, hipotesi nahiko zalantzarria da.
- 4) *Defentsa legitimo prebentiboa*: aurrekoa baino lausoagoa da. Ez dago ez erasorik ez horren prestaketen ezagutzarik, mehatxu abstraktu baten existentzia baizik. Ez dira gertaerak kontuan hartzen, baizik eta ustezko arrisku horren balorazioak. Ondorioz, Gutunaren 51. artikuluari zuzenean kontrajartzen zaio.
- 5) *A posteriori defentsa legitimoa*: behin eraso amaituta, herrialde erasotua jarduteko aukera erreserbatzean datza. Nahiz eta kasu honetan, aurrekoan ez bezala, agresio bat gertatu izan den, defentsa legitimo prebentiboa onartzea bezain arriskutsua da, biek *ad infinitum* erantzun armatuari irekitzen baitiote atea.

Iraken kasu zehatzean, Estatu Batuek defentsa legitimo prebentiboaren eta *a posteriori* defentsa legitimoaren arteko argudio nahasiak erabili zituzten. Alde batetik, Irakek suntsipen handiko armak zituelakoan oinarritu ziren hurbileko edo berehalako mehatxu baten (*imminent threat*) existentziari eusteko. Jazoera hau ez zen inoiz behar bezala frogatu, eta gerora Estatu Batuek antolatutako engainu gisa kalifikatu izan da⁶⁶. Bestalde, Irakeko inbasioa terrorismoaren kontrako borrokarekin ere lotu zuen Bush presidenteak. 2002. urteko urtarrilaren 29an emandako hitzaldian⁶⁷, Irak Gaizkiaren Ardatza delakoa (*Axis of Evil*, ingelesez) osatzen zuten Estatuen barne kokatu zuen. Esapide honek terrorismoa babesten duten Estatuei egiten die erreferentzia, eta hitzaldian Iran, Irak eta Ipar Korea aipatu zituen. Geroago (2002ko maiatzean) Kuba, Libia eta Siria gehitu ziren⁶⁸.

Saddam Hussein, Irakeko garaiko estatu-buruak, ez zituen 2001ko irailaren 11ko atentatuak kondenatu, gainerako Estatu gehienek egin zuten bezala. Gertakari honek juridikoki garrantzi handia izan ez arren, dimentsio politikoan Saddam Hussein eta al-

⁶⁶“El engaño que provocó la guerra de Irak”, *BBC News*, 2013 martxoaren 18a. https://www.bbc.com/mundo/noticias/2013/03/130318_irak_guerra_espias_engano_nm, 2020ko azaroaren 30ean ikusia.

⁶⁷Hitzaldi osoa hurrengo estekan entzun eta irakurgai: <https://georgewbush-whitehouse.archives.gov/news/releases/2002/01/20020129-11.html>, 2020ko abenduaren 1ean ikusia.

⁶⁸“US expands ‘axis of evil’”, *BBC News*, 2002ko maiatzaren 6a. <http://news.bbc.co.uk/2/hi/americas/1971852.stm>, 2020ko abenduaren 1ean ikusia.

Qaeda talde terroristaren arteko lotura gauzatzeko balio izan zuen⁶⁹. Hori horrela izanik, Irakeko 2003ko inbasioa hein batean *a posteriori* defentsa legitimo bezala uler daiteke, 2001eko ekintza terroristez geroztik Estatu Batuek hasitako *War on Terror* delakoaren luzapen gisa, alegia.

Aipatu berri den bezala, Estatu Batuek nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik ekintza armatu zalantzarriak martxan jartzeko argudio ezberdinak erabili zituen, eta defentsa legitimoa prebentiboa mahaigaineratzeak oihartzun handia izan zuen arren, ez zen argudio juridiko nagusia izan. Formalki, suntsipen handiko armen berehalako mehatxuaren aurrean bi alditan aldarrikatu zuten Iraken defentsa legitimo prebentiboa martxan jartzea: batetik, 1441 (2002) Ebazpena onartzerakoan⁷⁰, eta bestetik, SK-ren presidenteari 2003ko martxoaren 20an bidalitako gutunean⁷¹. Estatu Batuek oso aktiboki hartu zuten parte Iraken desarmatze prozesuan, eta Irakeko inbasioa sostengatzeko argudioen artean, 13 urte geroago 678 (1990) Ebazpena “ber-aktibatzea” defendatu zuten, Irakek nazioarteko obligazio ugari urratu izana aldarrikatuta⁷².

Erabilitako argudioak edozein izan zirela ere, Irakeko inbasioak nazioarteko doktrinaren gaitzespena pairatu zuen. Horren adibide da, esaterako, Juristen Nazioarteko Batzordeak 2003ko martxoaren 18an argitaratutako prentsa-oharra: “*a small number of states are poised to launch an outright illegal invasion on Iraq, which amounts to a war of aggression (...) A war waged without clear mandate by the Security Council would constitute a flagrant violation of the use of force*”⁷³. Laburbilduz, 2001eko atentatuez geroztik defentsa legitimoa ahalbidetzen duten supostuen hedapena faktikoki eman den arren, ez dira Gutunaren 51. artikulutik haratago doazen defentsa legitimoa prebentibo, *a posteriori* edo dena delakoak formalki ontzat hartu. Zuzenbideak era gradualean eboluzionatzen du, eta ezin daiteke onartu horrelako norabide aldaketa drastikoa ohiturazko arauen barne sartzea. Betiko lez, teorian onartutakoa eta praktikan aurrera eramaten dena oso ezberdina da.

⁶⁹REGUEIRO DUBRA, Raquel: *op. cit.*, 169. or.

⁷⁰S/PV.4664, 2002ko azaroaren 8koa: <https://undocs.org/es/S/PV.4644>, 2020ko abenduaren 1ean ikusia.

⁷¹Dokumentu osoa hurrengo estekan irakurgai: <https://undocs.org/es/S/2003/342>, 2020ko abenduaren 1ean ikusia.

⁷²Lan honen 2. atalean aipatu bezala, SK-ren 678 (1990) Ebazpenak Irakek nazioarteko obligazioak bete zitzan Estatu kideei “beharrezko neurri guztiak hartzea” baimendu zuen. Beharrezko neurri guzti horien artean, noski, indarraren erabilera ere barneratzen zen, eta hori zen hain zuzen ere Estatu Batuek ebazpena onartu eta 13 urte geroago berreskuratu nahi zuten baimena.

⁷³Dokumentu osoa hurrengo estekan irakurgai: www.icj.org/IMG/pdf/iraq_war_18_03_03_.pdf, 2020ko abenduaren 1ean ikusia.

6. 2015eko AZAROAREN 13ko PARISEKO ATENTATUAK: FRANTZIAKO KASUA AZTERGAI

Irailaren 11ko atentatuez geroztik, fenomeno terroristaren pertzepzioa aldatu egiten da. Pertzepzio berri horren jatorrian “laugarren belaunaldiko terrorismoa” legoke, horren adierazpenik esanguratsuena al-Qaedaren eredu imitatzen duten talde jihadistak neosalafisten terrorismoa izanik⁷⁴.

2015eko azaroaren 13an, Parisen gertatutako atentatuek 130 hildako eta ehundaka zauritu utzi zituzten. Eraso hauen egiletza Daesh⁷⁵ talde terroristak erreibindikatu zuen, Europa borroka jihadistaren ituan kokatuz. Bush-ek 2001ean izandako estiloa jarraituz, atentatuak gertatu eta 3 egun geroago, 2015eko azaroaren 16an, Frantziako kongresuan burututako hitzaldian François Hollande presidentek terrorismoarekiko jarrera argi utzi zuen: “*La France est en guerre*”⁷⁶.

Gerra terminoaren erabilera hau kontzeptu tradizionalaren interpretaziotik aldatu egiten da. Izan ere, bi Estatu edo gehiagoren arteko gatazka belikoari erreferentzia egin beharrean, aktore ez-estatalen kontrako gerra deklarazioa burutu zuen Hollande-k. Ikuspuntu hertsiki juridikotik aztertuta, horrelako adierazpen bat egiteak gatazka armatuak arautzen dituen nazioarteko zuzenbide humanitarioaren arauen aplikazioa aintzat hartu beharra dakar, zeintzuk Estatu Batuek 2001ean jada azaldutako *War on Terror* martxan jartzean argi eta garbi alde batera utzi zituzten⁷⁷. Gainera, izaera estatalik ez duen entitate bati gerra deklaratzeko era inplizituan talde horri Estatu batek dituen zenbait prerrogatiba aitortzea suposatzen du. Frantziaren kasu zehatzera bueltatuz, kontuan hartuta Sirian eta, oro har, Ekialde Ertainean, hainbat talde terrorista aurki daitezkeela, baliteke EIRi zehazki

⁷⁴CALDUCH CERVERA, Rafael: “El Tratado de Lisboa y la amenaza terrorista en Europa”, in MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, José (koord.): *El Tratado de Lisboa. La salida de la crisis constitucional*, Iustel, Madril, 2008, 451. or.

⁷⁵Talde terrorista honi erreferentzia egiteko izen ezberdinak erabil daitezke: besteak beste, ISIS edo ISIL (*Islamic State of Iraq and Syria/the Levant*) akronimo ingelesak, Estatu Islamikoa (EI) edota Daesh akronimo arabiarra. Bestalde, azpimarratzekoa da talde terrorista hau ez dela antolakunde terrorista “normal” bat. Izan ere, okupatutako lurraldeetan, bereziki Irak eta Sirian, biztanleriaren gaineko erabateko kontrola lortzera iritsi da, zonalde horietan gobernantza propioa aurrera eraman eta Estatu Islamikoaren eraketa aldarrikatu duelarik.

⁷⁶Hitzaldi osoa hurrengo estekan irakurgai: <https://www.senat.fr/evenement/archives/D46/hollande.html>, 2020ko abenduaren 15ean ikusia.

⁷⁷Honen adibide argiena Bush presidentek sortutako Guantanamo itsas baseko kartzela da. Gaiaren inguruan gehiago sakontzeko, ikusi CASTILLO DAUDÍ, Mireya: “Los campos de detención de la base naval de Guantánamo: aspectos de Derecho internacional humanitario”, *REDI*, 66. bol., 1. zk., 2014, 159-179 or. Hurrengo estekan irakurgai: http://redi.ene-estudio.es/wp-content/uploads/2017/09/5-Mireya-Castillo-Daud%C3%AD_digital-.pdf, 2020ko abenduaren 21ean ikusia.

zuzendutako “gerra” adierazpen horrek Daesh-en lidergoa gainerako erakunde terroristen gainetik sendotzen lagundu izana⁷⁸.

Estatu Islamikoa suntsitzeko asmoa berretsiz, Frantziak Sirian operazio militarrik lehenbailehen areagotuko zituela adierazi zuen. Hori justifikatzeko, Gutuneko 51. artikulura bidalketa burutzen duen EBT-ren 42.7 artikularen aplikazioa formalki aldarrikatu zuen, berriz ere, 2001ean gertatu bezala, nazioarteko terrorismoaren kontrako borrokaren eta defentsa legítimoaren figuraren arteko lotura eginez. Gainerako 27 Estatu kideek Frantziaren interpretazioa bere egin eta EBT-ren 42.7 artikulua martxan jartzea aho batez onartu zuten⁷⁹.

Defentsa legítimoaren ildoarekin jarraituz, atentatuak kalifikatzerako orduan Hollande-k agresio hitza erabili zuela azpimarratzekoa da. 1974an BN-k 3314 (XXIX) Ebazpenean adierazitako definizioarekin batera, garrantzitsua da nabarmentzea gaur egun “agresio” terminoa “agresio krimena” delakoaren definizioarekin osa daitekeela, Nazioarteko Zigor Auzitegiaren kide diren Estatuak 2012an Kampalan burututako Erromako Estatutuaren 8 bis artikularen erreformarekin, alegia⁸⁰.

Frantziako delegatuek, kide diren beste 120 Estaturekin batera, aipatutako definizio honen eraketan parte hartu zuten, eta duda barik, aktore ez-estatalek era independentean Estatu bati lotuak egon gabe burututako ekintzak agresioaren markotik kanpo utzi zituzten⁸¹. Ordura arte, Frantzia defentsa legítimoaren figura aktore ez-estatalen aurka erabiltzeko aukeraren inguruan erreparoa adierazi izandako Estaturen artean kokatzen zen, baina Daesh-ek 2015ean burututako erasoan larritasuna eta antolakunde honek dituen baliabideak zein lurraldeen erabateko kontrola aintzat hartuta, nolabaiteko “proto-Estatu” bat litzatekeela argudiatu zuen. Interpretazio hori ontzat hartzekotan, aktore ez-

⁷⁸BOEGLIN NAUMOVIC, Nicolás: “Francia en guerra: breves apuntes desde la perspectiva del Derecho Internacional”, *Derecho al día*, 2015. <http://www.derechoaldia.com/index.php/248-todos/internacional/internacional-doctrina/773-francia-en-guerra-breves-apuntes-desde-la-perspectiva-del-derecho-internacional>, 2020ko abenduaren 21ean ikusia.

⁷⁹Aho batez hartutako erabaki hori Hollande presidentek EBT-ren 42.7 artikulua aplikatzeko eskatu eta hurrengo egunera berretsi zen, Federica Mogherini EBko goi ordezkariak Jean Yves Le Drian defentsa ministro frantsesarekin 2015eko azaroaren 17an emandako prentsurrekoan: https://eeas.europa.eu/headquarters/headquarters-homepage/5553_fr, 2020ko abenduaren 21ean ikusia.

⁸⁰Dokumentua hurrengo estekan irakurgai: <https://www.refworld.org/es/pdfid/5d7fcac5a.pdf>, 2020ko abenduaren 21ean ikusia.

⁸¹BOEGLIN NAUMOVIC, Nicolás: “La resolución 2249 no autoriza a bombardear Siria”, *Red Voltaire*, 2015. <https://www.voltairenet.org/article189509.html>, 2020ko abenduaren 17an ikusia.

estatalen ekintzak Estatu bati nahitaez esleitzearen baldintza ez litzateke, betiere salbuespenez, aplikatzeko beharrik egongo⁸².

Nahiz eta EB-ko Estatu kideek berehala onartu zuten Frantziak aldarrikatutako EBT-ren 42.7 artikulua aplikazioa, Nazio Batuen markoan SK-k, nazioarteko bake eta segurtasunaren bermatzaile gisa, bere iritzia eman zezan espero zen. Atentatuak gertatu eta berehala, 2015eko azaroaren 20an hain zuzen, 2249 (2015) Ebazpena onartu zuen, zeinetan terminologia lausoa nagusi den. Aurrerago sakonki aztertuko den moduan, izaera ambiguo hori izan zen, preseski, defentsa legitimoaren interpretazio zabala ahalbidetu zuena, EI-ren kontra “beharrezko neurri guztiak” hartzea indarra erabiltzeko baimen edo oniritzi gisa ulertu zelarik.

6.1. Elkartasuna Europar Batasunean: defentsa legitimo kolektiboa

2007an, EB-k segurtasun eta defentsa estrategia indartzeari ekin zion, lehendabiziko pausoa EBT eta EBFT Lisboako Tratatuaren bitartez erreformatzea izan zelarik. Europak Estatu Batuek garatutako *War on Terror* estrategiatik aldendu eta mehatxu berriei aurre egiteko dimentsio anitzeko estrategia konplexuagoa definitu zuen. Horretarako, terrorismoaren nazioarteko definizio komun baten aldeko apustua egin eta bere baliabideak mehatxu berrietara egokitzen saiatu da, besteak beste, Estatu kideen arteko informazio fluxuaren bitartez lankidetzaz polizial eta judiziala sustatuz⁸³.

EB-ren artikulatuari erreparatuta, Pariseko atentatuen aurrean Frantziak bi mekanismo zituen eskura: alde batetik, jada aipatutako EBT-ren 42.7 artikulua (elkarrekiko laguntza), eta bestetik, EBFT-ren 222. artikulua (elkartasuna). Lehendabizikoak eraso armatu baten aurrean Gutunaren 51. artikuluko jarraibideekin bat defentsa legitimoa onartzen du, hura aurrera eramateko laguntza behar izatekotan gainerako Estatu kideek erasotuari eskaini beharko diotelarik:

“Baldin eta estatu kide bati armaz erasotzen badiote bere lurraldean, gainerako estatu kideek laguntza eta sorospena eman beharko dizkiote, bakoitzak dituen bitarteko guztiak

⁸²GUTIÉRREZ ESPADA, Cesáreo: “«Choque de civilizaciones» (el autoproclamado Estado Islámico). Respuesta de la comunidad internacional. ¿Una «alianza de civilizaciones» contra el Estado Islámico?”, in SOROETA LICERAS, Juan (koord.): *Anuario de los cursos de derechos humanos de Donostia-San Sebastián*, Aranzadi Thomson Reuters, bol. XVI, 2017, 152. or.

⁸³AIXALÁ BLANCH, Albert: “La estrategia de la UE ante el terrorismo internacional y la defensa de los derechos y libertades” in BARBÉ, Esther (koord.): *Política exterior y Parlamento Europeo: hacia el equilibrio entre democracia y eficacia*, Oficina d'Informació del Parlament Europeu, Bartzelona, 2007, 55. or.

erabilita, Nazio Batuen Gutunaren 51. artikulua arabera. Hori halaxe izango da, baina zenbait estatu kideren segurtasun- eta defentsa-politikaren berriazko izaerari kalterik egin gabe.

Esparru honetako konpromisoak eta lankidetzak gero ere Ipar Atlantikoko Tratatuen Erakundearen barruan hartutako konpromisoei egokituko zaizkie, erakunde hori izango baita aurrerantzean ere, erakunde osatzen duten estatu kideentzat, beren defentsa kolektiboaren oinarri eta defentsa hori burutzeko organismo”.

Artikulu honen aplikazioak EB-ko Estatu kide batek eraso bat jasatekotan defentsa legitimoa kolektiboa martxan jartzea dakar. Figura honek berez eraso armaturik jasan ez duen Estatu batek indarra erabil dezan ahalbidetzen du, betiere Estatu erasotuak hala eskatzen badu. Aipatzekoa da Frantzia izan zela, hain zuzen ere, indarrean sartu eta zazpi urte geroago EBT-ren 42.7 artikulua estreinakoz erabili zuen Estatu kidea. Gainera, Frantziak bere eskaera egin zuenean, EB-ko hainbat Estatu jada EI-ren kontrako borrokan defentsa legitimoa kolektiboa egikaritzen ari ziren Irakek 2014an hala eskatu zuenetik. Irakekiko laguntza, noski, EBT-ren eremutik kanpo kokatzen da, eta honek indarra erabiltzeko titulu desberdinen konkurrentzia sortu zuen⁸⁴.

EBFT-ren 222. artikulua, aldiz, terrorismoari era espresuan erreferentzia egiten dio, Estatu kideen arteko elkartasun printzipioa ezarri eta ekintza bateratuak burutzaren alde eginez:

“1. Batasunak eta Estatu kideek elkarrekin batera jardungo dute elkartasunez, estatu kide bati eraso terrorista bat eginez gero edo hondamendiren bat, naturala zein gizakiak eragindakoa, gertatuz gero. Batasunak bere esku dituen tresna guztiak erabiliko ditu, estatu kideek Batasunaren esku utzitako bitarteko militarrek ere barnean direla, helburuok hauek izanik:

a) — estatu kideen lurraldean mehatxu terroristari aurrea hartzea;

— instituzio demokratikoak eta herritarrak balizko eraso terroristetatik babestea;

— estatu kide bati, bere lurraldean, laguntza ematea, eraso terroristaren bat gertatuz gero, bertako agintariak hala eskatuta;

b) estatu kide bati, bere lurraldean, laguntza ematea, naturak zein gizakiak eragindako hondamendiren bat gertatuz gero, bertako agintariak hala eskatuta.

⁸⁴POZO SERRANO, Pilar: “La legítima defensa colectiva en el marco del Derecho y la práctica de la UE”, in CARACUEL RAYA, María Angustias: *Compartiendo (visiones de) Seguridad: IV Congreso*, ADESyD, Madril, 130-131 or.

2. Estatu kideren batean eraso terroristaren bat gertatzen bada edo naturak zein gizakiak eragindako hondamendiren bat gertatzen bada, eta agintari politikoek hala eskatzen badute, gainerako estatu kideek lagundu egin beharko diote. Horretarako, Kontseiluan estatu kideak koordinatu egin beharko dira”. (...)

Elkarrekiko laguntzaren klausula eta elkartasun printzipioari buruzkoa lotuta daude, eta argi dago erregulazio horien jatorria irailaren 11ren osteko kontzientzian dagoela, hots, nazioarteko terrorismoaren aurkako borrokan bitartekoak eta ahaleginak batu behar izatearen kontzientzian⁸⁵. Artikulu biei erreparatuta, EBT-ren 42.7 artikulua soilik aplikatu beharrean EBFT-ren 222. artikulura ere jotzea zentzuzkoena dirudi, hura baita terrorismoaren supostua biltzen duena. Hori horrela izanik, zergatik ez zuen Frantziak elkartasun printzipioa aplikatu izan nahi? Zein da artikuluen arteko ezberdintasuna?

EBFT-ren 222. artikulua estrategia antiterrorista bateratuaren alde egiten du, izaera ezberdineko baliabideak (legalak, polizialak, judizialak eta militarrik barne) bildu eta hauek neurri batean etsai komunaren aurkako borroka komunitarizatzeko helburua du. EBT-ren 42.7 artikulua, aitzitik, terrorismoaren testuinguru espezifikoan sartu gabe, Estatu erasotuari laguntza emateko beharrean zentratzen da, defentsa legitimo kolektiboaren markoan kokatuz.

Gauzak horrela, egoera hauetarako espresuki diseinatutako estrategia izanda, bitxia da haren gaineko aipamen bakar bat ere ez egitea eta zuzenean juridikoki oinarri zalantzarriak dituen aktore ez-estatalen kontrako defentsa legitimoaren aldeko apustua egitea. Frantziako kanpoko arazoen ministerioan afera juridikoen zuzendari den François Alabrune-ren ustetan, EBFT-ren 222. artikulua alde batera uztea arrazoi politiko eta diplomatikoetan oinarritu zen. Izan ere, Frantziak ez zuen bere erreakzio-gaitasunaren mugak gaindituta egoteari buruzko aipamenik egiteko inolako asmorik, ez eta laguntza behar zuela pentsaraziko zuen profilik aurkezteko ere⁸⁶.

Beste hitzetan esanda, Frantziak nazioarteko komunitatearen aurrean terrorismoari behar besteko indarrarekin aurre egiteko Estatu sendo gisa aurkeztu nahi izan zuen bere burua, horretarako berehalako erantzun armatua ahalbidetzen zuen EBT-ren 42.7 artikulura joz. Dena den, sendotasuna azaltzea ez litzateke elkartasun printzipioari buruzko klausula

⁸⁵RUBIO GARCÍA, Dolores: “Las cláusulas de asistencia mutua y solidaridad introducidas por el Tratado de Lisboa: el refuerzo de la seguridad y la defensa en la Unión Europea”, *Observatorio de Política Exterior Española*, 2011, 25. or.

⁸⁶ALABRUNE, François: “Fondements juridiques de l’intervention militaire française contre Daech en Irak et en Syrie”, *Révue Générale de Droit International Public*, 120. bol., 1. zk., 2016, 49. or.

baztertzeko arrazoi bakarra. Izan ere, artikulua batek zein besteak solidaritate beraren adierazle dira, baina osagai lurraldetar ezberdina dute: EBFT-ren 222. artikulua Estatu kideen mugen barne aktiba daitekeen bitartean, EBT-ren 42.7 artikuluan definitutako erantzun armatua EBtik kanpo hirugarren Estatuetan burutzeko aukera dago⁸⁷.

Ondorioz, Frantziaren asmoa Sirian operazio militarrek areagotzea izanik, EBFT-ren 222. artikulua aurreikusitako estrategia antiterrorista bateratua martxan jartzeak ez zukeen helburu hori lortzeko erabilgarritasun handirik izango. Estrategia frantsesa artikulua horren aplikazio eremutik kanpo zihoan, EB-ko muga fisikoetaz haraindi, alegia.

6.2. Indar armatuaren erabilera Sirian: EI-ren kontrako borroka

Arestian aipatutako Hollande presidentearen hitzaldian, honek EI-k Sirian duen presentzia eta kontrola azpimarratu zuen: *“La Syrie est devenue la plus grande fabrique de terroristes que le monde ait connu et la communauté internationale”*. Lotura horren harira, atentatuak gertatu eta berehala Raqqa-n kokatutako Daesh-en kontrolpeko lurraldea bonbardatzeko agindua eman zuen.

2449 (2015) Ebazpena onartu zen egun berean, NBE-n Estatu frantsesaren ordezkari iraunkor den François Delattre-k zera adierazi zuen: *“Nos actions militaires, dont nous avons informé le Conseil de sécurité dès l’origine, étaient justifiées par la légitime défense collective. Elles peuvent désormais se fonder également sur la légitime défense individuelle, conformément à l’Article 51 de la Charte des Nations Unies”*⁸⁸. Zalantza izpirik gabe, Frantziak ebazpen hau Siria defentsa legitimoaren izenean bonbardatzeko oniritzi gisa ulertu zuen, ordura arte bere jarrerak izan zezakeen aldebakarreko kutsu edo izaera ezabatzen lagundu zuena. Bestalde, Delattre jaunak defentsa legitimo kolektiboari erreferentzia egiten dionean, atentatuak gertatu baino lehen Irak eta Sirian burututako operazio militarretaz ari da, hau da, bere burua zuzenean erasotutako Estatutzat hartu baino lehen burututakoak.

Izan ere, Frantziak Pariseko 2015eko atentatuak Sirian indar armatua erabiltzeko justifikazio gisa baliatu zituen arren, argudio hori izan aurretik bonbardaketak burutu izan zituen, betiere EI-ren kontra borrokatu eta hura suntsitzea izanik aurkeztutako helburuak.

⁸⁷RUBIO GARCÍA, Dolores: *op. cit.*, 14. or.

⁸⁸François Delattre-k azaroaren 20an burututako adierazpenen inguruko xehetasun gehiago izateko, ikusi: <https://www.un.org/press/fr/2015/cs12132.doc.htm>, 2020ko abenduaren 16an ikusia.

6.2.1. Atentatuen aurretik: *unwilling or unable* testa

Pariseko atentatuak gertatu baino hilabete t'erdi lehenago, 2015eko irailaren 27an, Frantziak Siria bonbardatu zuen, EI-k suposatzen zuen mundu mailako mehatxua suntsitzeko beharra adieraziz eta defentsa legitimo kolektiboa aldarrikatuz⁸⁹.

Aldarrikapen kolektibo horren oinarrian EI-ren kontrako Nazioarteko Koalizioa legoke (aurrerantzean, EIKNK). Aliantza honen jaiotza 2014an eman zen, Irakeko gobernuak Estatu Islamikoari aurre egiteko nazioarteko laguntza eskatu zuenean⁹⁰. Guztira, 83 kide biltzen ditu Koalizioak, haien artean, noski, Frantzia aurki daitekeelarik⁹¹.

Koalizioak nazioarteko terrorismoari Gutunaren markotik kanpo erantzun ez-instituzionalizatu eta armatu bati ekin zion. Aktore ez-estatalen kontrako defentsa legitimoa onartzekotan, Irakeko gobernuaren eskaera defentsa legitimo kolektiboaren adierazle gisa uler daiteke, Frantziak egindako interpretazioarekin bat eginez⁹². Koalizioaren helburua EI suntsitzea izanik, kideek operazioak Siriako lurraldera hedatu zituzten. Irakek bere lurraldean indarra erabiltzeko baimena eman duen bitartean, Sirian ez da halakorik gertatu, eta ondorioz, ez legoke lurralde siriarrean operazio legitimorik aurrera eramateko oinarri juridikorik.

Ageriko oinarri falta kontuan hartuta, nolatan justifikatu zuen EIKNK-k operazio armatuak Sirian burutzen hastea? Interpretazio zabal eta trikimailu juridikoen atzean, berriz ere, Estatu Batuak ditugu. 2014ko irailaren 23an NBE-ren Idazkari Nagusiari zuzendutako gutunean, ordezkari iraunkor amerikarrak, Samantha J. Power-ek, defentsa legitimoa justifikatzeko *unwilling or unable* testa delakoa defendatu zuen:

“ISIL and other terrorist groups in Syria are a threat not only to Iraq, but also to many other countries, including the United States and our partners in the region and beyond. States must be able to defend themselves, in accordance with the inherent right of individual and collective self-defence, as reflected in Article 51 of the Charter of the United Nations, when, as is the case here, the government of the State where the threat

⁸⁹Bidezko defentsa kolektibo horren aldarrikapen zehatza François Delattre-k 2015eko irailaren 9an NBE-ren Idazkari Nagusiari eta SK-ren presidenteari bidalitako gutunean aurki daiteke, zeina Siria bonbardatzeari ekin baino lehen bidali zen. Dokumentu osoa hurrengo estekan irakurgai: <https://undocs.org/fr/S/2015/745>, 2020ko abenduaren 21ean ikusia.

⁹⁰Mohamad Ali Alhakim-ek, NBE-n Irakeko ordezkari iraunkorrek, SK-ren presidenteari zuzendutako gutuna hurrengo estekan irakurgai: <https://undocs.org/sp/S/2014/691>, 2020ko abenduaren 21ean ikusia.

⁹¹Kide guztien zerrenda hurrengo estekan eskuragarri: <https://theglobalcoalition.org/en/partners/>, 2020ko abenduaren 22an ikusia.

⁹²GUTIÉRREZ ESPADA, Cesáreo: *op. cit.*, 197. or.

*is located is unwilling or unable to prevent the use of its territory for such attacks. The Syrian regime has shown that it cannot and will not confront these safe havens effectively itself*⁹³.

Ikuspuntu juridikotik, teoria honen arabera, beste Estatu baten lurraldean (kasu honetan, Sirian) ekintza armatuak burutzea posible litzateke, nahiz eta hau talde terroristen erantzule edo konplize ez izan. Esku-hartze armatua justifikatzeko Estatu hori mehatxu terroristari aurre egiteko prest ez egotea (*unwilling*) ala ahalmenik ez izatearekin (*unable*) nahikoa litzateke⁹⁴. Doktrinaren zati batek⁹⁵ onartutako planteamendua izan arren, defentsa legitimoaren eskubidearen interpretazio hedatzaile berri baten aurrean gaudela argi dago, eta orokorrean, EIKNK-k Sirian aldarrikatutako defentsa legitimoa ikuspuntu doktrinal kontraerriak sortu ditu.

Alde agertu diren autoreen artean, Christine Chinkin eta Mary Kaldor-ek aktore ez-estatalen kontrako defentsa legitimoa asimilatutako praktika bihurtzeko bidean dagoela azpimarratu dute. Izan ere, mendebaldeko Estatuak EI-ren kontra borrokatzeko azken aldiak planteatutako estrategiek defentsa legitimoa egikaritzeko berehalakotasun, beharrezkotasun eta proportzionaltasun baldintzak malgutzea ekarri dutela deritzote⁹⁶.

Beste batzuek, Matthias Hartwig ikertzaileak esaterako, interpretazio eta praktika berri hauekiko jarrera oso kritikoa hartu dute, indartsuenak diren Estatuak eta hauen interesak nazioarteko zuzenbidearen gainetik kokatzea ahalbidetzen dute eta:

“It was within the discretion of the stronger States to make the choice between the countries where they wanted to exercise self-defence. The weaker States have to put up with it. However, the law should be equal for all. Therefore, if ever one wants to promote the concept of self-defence against non-State-actors one has to establish rules which regulate the exercise of self-defence in such situations. This must include proper criteria

⁹³Dokumentu osoa hurrengo estekan irakurgai: <https://undocs.org/S/2014/695>, 2020ko abenduaren 22an ikusia.

⁹⁴ANDRÉS SÁENZ DE SANTAMARÍA, Paz: “Siria: las dificultades del derecho internacional ante un conflicto poliédrico”, *Cursos de derecho internacional y relaciones internacionales de Vitoria-Gasteiz/Vitoria-Gasteizko nazioarteko zuzenbide eta nazioarteko harremanen ikastaroak*, 1. zk., 2018, 48-49 or.

⁹⁵Besteak beste, ikusi DEEKS, Ashley: “«Unwilling or Unable»: Toward a Normative Framework for Extra-Territorial Self-Defense”, *Virginia Journal of International Law*, 52. bol., 2012, 483-550 or eta REINOLD, Theresa: “State Weakness, Irregular Warfare, and the Right to Self-Defense Post-9/11”, *AJIL*, 105. bol., 2011, 244-286 or.

⁹⁶CHINKIN, Christine eta KALDOR, Mary: *International Law and New Wars*, CUP, Cambridge, 2017, 173. or.

for the justification of military actions in the territory of another State. Otherwise the international rules will end where they came from: the law of the jungle”⁹⁷.

Azken autore honek, *unwilling or unable* teoriaren ahultasunak agerian uztearren hurrengo galdera polemikoa jaurti izan du: kontuan hartuta 2015eko azaroan gertatutako Pariseko atentatuak Europan bizi ziren terroristek prestatu eta exekutatu zituztela eta Frantzia terroristak gelditzeko gai ez zela izan, posible litzateke Siriak defentsa legitimoa kolektiboaren izenean lurralde frantsesean neurri militarrek hartzea?⁹⁸.

Izaera doktrinaleko kritikaz aparte, azpimarratzekoa da Errusiak hartutako jarrera, zeinek Frantziaren jarrera Siriako lurraldean nazioarteko zuzenbidearen suntsipen gisa kalifikatu zuen⁹⁹. Gainera, lurraldea Estatu baten elementu eratzailerik da, eta hura baimenik gabe bonbardatzea Estatu erasotuaren subiranotasuna urratzea dakar¹⁰⁰.

Hitz gutxitan, Phillipe Lagrange Poitiers-eko Unibertsitateko irakasleak 2015eko urrian elkarrizketa batean adierazitakoak oso ondo laburtzen du Frantziaren portaera aldaketa eta Siria lehendabiziko aldiz bonbardatzea ikuspuntu juridikotik suposatzen zuten urraketa: *“Jusqu'à présent, la France appliquait le droit international quant à l'autorisation de recours à la force. Pour frapper en Syrie, il fallait soit l'accord des autorités légales du pays, soit une résolution du Conseil de sécurité des Nations unies. Nous n'avons ni l'une, ni l'autre”*¹⁰¹.

⁹⁷HARTWIG, Matthias: “Which State’s Territory May Be Used for Self-Defence Against NonState Actors?”, *ZaöRV*, 77. bol., 2017, 173 or.

⁹⁸Ibidem, 44. or.

⁹⁹Errusiaren jarrerari dagokionez, azpimarratu beharrekoa da Siriak egun bizi duen egoera oso konplexua dela, Elren ekintzetaz haratago doana eta haien artean nahasten diren izaera ezberdineko gatazkak biltzen dituen. Era sinplista batean azalduta, gatazka zentrala gerra zibila litzateke, 2011. urtean Bashar Al-Assad presidentearen kontra burututako errebotetan jatorria duena. Alde batetik, Errusiak Al-Assad-i babes eman eta Siriaren aliatu bezala aurkeztu izan du bere burua, Siriako lurraldean ekintza armatuak aurrera eramateko gobernuaren partetik baimen esplizitua izan duelarik (baimen horren falta izan zen, hain zuzen ere, Errusiak Frantziari 2015eko irailean burututako bonbardaketan ostean aurpegiatutakoa). Bestalde, Al-Assad boteretik botatzeko ahaleginetan, AEB eta Erresuma Batuak gerra zibilean esku hartu eta matxino siriarrak armatu izan dituzte, estrategia honek arazo gehigarriak ekarri izan dituelarik: 2013an laguntza militarren zati bat suspenditzera behartuta ikusi zituzten haien buruak, bidalitako armategia milizia jihadistaren baten eskutik erori zen eta. Errusiaren ustetan, ekintza hauek egoera okertu eta Elren boterea areagotzea ekarri dute. Labur esanda, Siria AEB eta Errusiaren arteko XXI. mendeko gerra hotzaren eszenatoki bihurtu da, interes geopolitiko kontrajarriak protagonista direlarik. Gai honen inguruan sakontzeko, ikusi: GHOTME, Rafat eta RIPOLL, Alejandra: “Las relaciones internacionales de la Guerra Civil Siria: Estados Unidos y Rusia en lucha por el poder internacional”, *Revista de Relaciones Internacionales, Estrategia y Seguridad*, 9. bol., 2. zk., 2014, 49-76 or.

¹⁰⁰ANDRÉS SÁENZ DE SANTAMARÍA, Paz: *op. cit.*, 51. or.

¹⁰¹Elkarrizketa osoa hurrengo estekan irakurgai: <https://www.lopinion.fr/edition/international/francais-tues-en-syrie-legitime-defense-ne-peut-pas-etre-invoquee-53756>, 2020ko abenduaren 22an ikusia.

6.2.2. Atentatuen ostean: SK-ren 2249 (2015) Ebazpena

Atentatuak gertatu eta 7 egun geroago, 2015eko azaroaren 20an, SK-k 2249 (2015) Ebazpena onartu zuen, Frantziak ebazpen proiektu moduan aurkeztutako testuan oinarritu zena, Errusiak eskatutako aldaketak aintzat hartu zirelarik. Ebazpenak Daesh inoiz ez bezalako nazioarteko bake eta segurtasunaren kontrako mehatxu gisa kalifikatzen du, eta urtean zehar hark burututako atentatu guztiak¹⁰² espresuki kondenatzen ditu. SK-k EI borrokatu beharra dagoela argi uzten du, eta 5. puntuan ekintza terrorista ekidin zein zapaltzeko Estatu kide guztiek “beharrezko neurri guztiak” har ditzaten agintzen du, nazioarteko lankidetzaren indartuari dei eginez.

2249 (2015) Ebazpenaren ezaugarri adierazgarriena anbiguotasuna da. Beharrezko neurri guztiak hartzeko eskaera indarra erabiltzeko baimen gisa ulertu izan da, Frantziari atentatuen ostean defentsa legitimorako eskubidea aintzatesten zitzaiolarik, baina interpretazio hau zabalegia litzateke. Izan ere, ebazpena ez da indarraren erabilera arautzen duen Gutunaren VII. Kapituluaren markoan kokatzen¹⁰³; ez zaio ez segurtasun kolektiborako sistemari ez defentsa legitimoaren figurari inolako aipamenik egiten.

Erredakzio lauso horrek ekintza militarrik politikoki justifikatzea ahalbidetu zuen, justifikazio juridikoa saihestuz. Nahiz eta aipamen zuzenik ez egin, SK-ren oniritzia adierazten duen itxura izanik, ekintza horien oinarrian egon beharko litzatekeen legezkotasunari buruzko eztabaida amaitezina ebatzi gabe utzi zen. Gauzak horrela, 2249 (2015) Ebazpenak EIKNK-ren jardueren errefortzu politikoa suposatu zuen¹⁰⁴.

SK-k, VII. Kapituluarekin bat etorritik, esku-hartze armatu bat baimendu izan balu liskarrak geldiarazi eta herritarrak babesteko helburuarekin¹⁰⁵, Sirian indarra erabiltzea erabat legezkoa izango zatekeen, baina ez zen halakorik egon. Agerikoa da arrazoi humanitarioak dela eta indar armatua erabiltzea onartuko luketen oinarritzko printzipioen arauketa falta dela, hau SK-k bete beharreko hutsunea izanik¹⁰⁶.

¹⁰²Susa (Tunez) ekainak 26an, Ankara urriak 10ean, Sinai urriak 31n, Beirut azaroak 12an eta Paris azaroak 13an.

¹⁰³GUTIÉRREZ ESPADA, Cesáreo: *op. cit.* 183. or.

¹⁰⁴ANDRÉS SÁENZ DE SANTAMARÍA, Paz: *op. cit.*, 53. or.

¹⁰⁵Babesteko erantzukizunaren inguruan, ikusi BN-ren 60/1 Ebazpena, hurrengo estekan irakurgai: <http://www.undocs.org/en/A/RES/60/1>, 2020ko abenduaren 22an ikusia.

¹⁰⁶GUTIÉRREZ ESPADA, Cesáreo: *op. cit.* 163. or.

2249 (2015) Ebazpenaren bitartez, SK bigarren mailako rol pasibora bueltatu da, Estatuaren ekintzei onarpen moral hutsa eskaintzen dien organoa izatera pasaz eta Nazio Batuen Gutunak esleitutako funtzio zentral eta oinarrizkotik erabat urrunduz. Nazioarteko terrorismoa bezalako fenomeno globalen kontra beharrezko neurri kolektiboak hartu beharrean, Estatu kideek defentsa legitimoaren izenean edo eragindako lurraldearen Estatuaren onespena dela medio aritu daitezten onartzera mugatzen da. SK-k nazioarteko bake eta segurtasunaren bermatzaile gisa izan beharreko rola alde batera uzteak Estatuaren autonomizazio prozesu bat ekarri du, halabeharrez unilateralki aritzea ahalbidetzen dien defentsa legitimoaren figuraren nozioa izugarri hedatuz. Ez da gauza segurua dinamika berri honek nazioarteko harremanen egonkortasunari mesederik egin dionik¹⁰⁷.

Ondorioz, azken urteotako nazioarteko terrorismoaren kontrako borroka Estatuak aurrera eramandako aldebakarreko ekintzen gainean konfiguratu izan da, SK-ren jarrera distantziakidea baliatuz. Nahiz eta EB estrategia antiterrorista integrala martxan jartzen saiatu den, nabarmena da Frantziak 2015ean erabakiak hartzerako momentuan *War on Terror* eredu amerikarra jarraitu izan zuela. Bi Estatuak jihadismoari aurre egiteko aukeratutako esku-hartze militar modeloen arteko antzekotasuna ez da ilusio huts bat: alde batetik, Pariseko atentatuak gertatu eta gero Frantziako egoitza presidentzialera pertsonalki gerturatu zen lehen diplomatiko atzerritarra John Kerry Estatu idazkari amerikarra izan zen, 2015eko azaroaren 17an. Beste alde batetik, Hollande presidenteak atentatuen ostean atzerrira burututako aurreneko bidaia, azaroaren 24an, Washington-era izan zen, bere homologo estatubatuarrekin, Barack Obamarekin hain zuzen, biltzeko¹⁰⁸.

Aztertu berri diren aspektu guztiak zein Gutunak ezarritako erregimen juridikoa hertsiki jarraitzekotan eta geroz eta oniritzi sendoagoaz gozatzen duten defentsa legitimoaren interpretazio zabal eta hedatzaileak alde batera uztekotan, Frantziak oro har Sirian burututako operazioak, bai 2015eko azaroaren 13 baino lehen bai ostean, nazioarteko zuzenbidearen prismetik ez lirateke legalak izango. EI-ren kontrako borrokaren izenean martxan jarritako ekintza militarren zalantzagarritasuna nabaria izan arren, Frantziak ez du nazioarteko komunitatearen partetik kritika handirik jasan, NJA-ren isiltasuna geroz eta kezagarriagoa delarik.

¹⁰⁷LATY, Franck: "Le brouillage des repères du jus contra bellum. À propos de l'usage de la force par la France contre Daech", *RGDIP*, 120. bol., 1. zk., 2016, 37 or.

¹⁰⁸*Ibidem*.

7. ONDORIOAK

Nahiz eta azken hamarkadetan indarra hartu duten mehatxu berrien aurrean defentsa legitimoaren figura egikaritzeak dituen mugak zehaztea eta nazioarteko komunitatearen baitan erabateko adostasuna lortzea ezinezkoa dirudien, gustatu ala ez ukaezina da Gutunaren 51. artikulua eboluzio prozesu batean murgilduta dagoela. Lan honetan zehar maiz aipatu den bezala, interpretazio geroz eta zabalagoak praktikan jarri izan dira, horien gaineko gaitzespen tinkoek oihartzun gutxi izan dutelarik.

Gauzak horrela, defentsa legitimoa aktore ez-estatalen aurka egikaritzea, printzipioz legez kontrakoa litzatekeena, isilbidez onartu eta asimilatutako figura bihurtu da, zenbaitetan ohiturazko zuzenbidearen parte izatera pasa dela argudiatu delarik. Egia da zuzenbide konsuetudinarioak nazioarteko zuzenbide publikoaren alorrean pisu handia duela, baina urraketak ohitura bihurtzea arriskutsua izan daiteke. Ene uste apalean, dinamika horrek zenbait Estaturen interes edo asmo partikularrak zuzenbidearen gainetik jartzea ekarri du, eta helburuak bitartekoak justifikatzen dituelaren teoria bete-betean aplikatu izan da.

Erabat bidezkoa eta beharrezkoa den helburua lortzeak (kasu honetan, nazioarteko terrorismoa akabatzea) ez luke indarraren bereizketarik gabeko erabilera justifikatu beharko. Nazio Batuen Gutunaren 2.4 artikulua argi uzten du: indarraren erabilera debekatuta dago, salbuespenak salbuespen. Defentsa legitimoa salbuespen horien artean kokatzen da, bai, baina horrek ez du esan nahi edozein ekintza armatu aurrera eramateko komodin gisa argudia daitekeenik.

Indarraren erabilera oro gaitzesten duten jarrera bakezale utopikoak alde batera utzita, EI bezalako egiturak bitarteko diplomatiko hutsak baliatuz suntsitu ezin direla onartu beharra dago. Oro har, gatazka armatuak oso konplexuak dira (Siriaren kasuan, jihadismoa arazoaren zati bat baino ez da), eta argi dago, denborak frogatu duen bezala, mendebaldeko herrialdeek burututako bonbardaketek ez dutela konponbide magikorik suposatzen. Terrorismoaren kontra jarraitu beharreko estrategia egokiari dagokionez, Kofi Annan NBE-ren Idazkari Nagusiak 2005ean aurkeztutako “bost D” delakoak abiapuntu ona lirateke: *“dissuading people from resorting to terrorism or supporting it;*

denying terrorists the means to carry out an attack; deterring States from supporting terrorism; developing State capacity to defeat terrorism; and defending human rights”¹⁰⁹.

Nazioarteko terrorismoa guztioi eragiten gaituen mehatxua izanik, aldebakarreko jarrerak baztertu eta kooperazio internazionala indartzearen aldekoa naiz, baina lankidetzaren horren barne gehien eragindako Estatuak, hau da, haien lurraldeak al-Qaeda edo Daesh bezalako taldeen kokaleku gisa dituztenek, zeresana izan beharko lukete. Era sinplista batean planteatuta, Siriaren baimen espresurik gabe hura bonbardatzea aho batez gaitzetsi beharko litzatekeen praktika bat da, hori ez baita laguntza eskaintzea, baizik eta Estatu baten borondatearen kontra neurri arrotzak hartzea.

Beste herrialde baten borondatearen kontra hartutako neurrien harira, nazioarteko terrorismoaren auzian eurozentrismoa eta orokorrean mendebaldeko Estatuak Ekialde Ertaineko Estatuakiko jarrera paternalista kritikatu beharreko portaera dela deritzot, honen adibide argiena *unwilling or unable* testa izanik. Aurreko atalean azaldu bezala, Siria terrorismoari aurre egiteko gai ez den hein berdinean, Frantziak ez zuen, zoritxarrez, 2015eko atentatuak ekiditea lortu. Siria terrorismoaren aurrean herrialde babesgabe bat bezala ikusten dugun bitartean, Frantziak salbatzaile gisa aurkeztu izan du bere burua.

Kooperazio edo lankidetzaren alorrera itzulita, SK-k oraintsu duen jarrera pasiboa atzean utzi eta nazioarteko bake eta segurtasunaren berme-emaile bezala duen papera berreskura dezan ezinbestekoa da, VII. Kapituluako segurtasun kolektiborako sistema aplikatzea lehenetsiz eta 51. artikuluaen neurrigabeko aplikazioa ekidinez. Izan ere, defentsa legitimoa aktore ez-estatalen aurrean egikaritzea baztertzeak ez du esan nahi mehatxu hauen aurrean ezin dela inolako neurririk hartu.

Nazioarteko zuzenbideak orokorrean eta Nazio Batuen Gutunak bereziki zehaztutako markoa errespetatuz aritzea da, hain zuzen ere, 2016. urtean mundu osoko nazioarteko zuzenbide publikoko berrehun irakaslek baino gehiagok sinatutako “*A Plea Against the Abusive Invocation of Self-Defence as a Response to Terrorism*”¹¹⁰ manifestuaren bitartez defendatutakoa, zeinarekin erabat ados natorren. Azken aldirian defentsa

¹⁰⁹Terrorismoaren kontra borrokatzeko Kofi Annan Idazkari Nagusiak planteatutako estrategia eta gomendioen inguruko xehetasun gehiago hurrengo estekan eskuragarri: <https://www.globalpolicy.org/images/pdfs/may06kofisreport.pdf>, 2020ko abenduaren 22an ikusia.

¹¹⁰Dokumentu osoa eta sinatzaileen zerrenda hurrengo esteketan irakurgai: <http://cdi.ulb.ac.be/wp-content/uploads/2016/06/A-plea-against-the-abusive-invocation-of-self-defence.pdf> eta <http://cdi.ulb.ac.be/wp-content/uploads/2016/06/Liste-prof-et-assistants-oct.pdf>, 2020ko abenduaren 22an ikusia.

legitimoaren figurak terrorismoaren kontra borrokatzeko tresna gisa pairatzen ari duen desitxuratzearen aurrean, iritzi doktrinal kritikoak agertzeak berebiziko garrantzia du.

Laburbilduz, defentsa legitimoa supostu oso konkretuetara mugatu beharko litzatekeen eskubide pribilegiatua dela deritzot, tentu handiz eta berme guztiak errespetatuz egikaritu beharrekoa. Nazioarteko terrorismoa borrokatzeak eta indarraren erabilera zentzuzko eta neurtua burutzeak bateragarriak izan beharko lukete, luzaroan alde batera utzi eta zeharo urratu den nazioarteko zuzenbide humanitarioak paper garrantzitsua jokatu beharko lukeelarik.

Lan honen sarreran aipatu bezala, ez dago egia absoluturik eta defentsa legitimoaren figuraren inguruan interpretazio desberdinak (zenbaitetan, kontrajarriak) aurki daitezke. Zuria eta beltzaren artean gris anitz daude, baina ez dago Parisen doluzko trajea jantzi bitartean beste herrialde bat haren borondatearen kontra bonbardatzen aritzea bidezkoa dela dioen tesiaz konbentzituriko nauen argudiorik.

BIBLIOGRAFIA

Monografiak eta artikulak

AIXALÁ BLANCH, Albert: “La estrategia de la UE ante el terrorismo internacional y la defensa de los derechos y libertades” in BARBÉ, Esther (koord.): *Política exterior y Parlamento Europeo: hacia el equilibrio entre democracia y eficacia*, Oficina d'Informació del Parlament Europeu, Bartzelona, 2007, 51-65 or.

ALABRUNE, François: “Fondements juridiques de l'intervention militaire française contre Daech en Irak et en Syrie”, *Révue Générale de Droit International Public*, 120. bol., 1. zk., 2016, 41-49 or.

ALCOCEBA GIL, Juan Manuel: “Contraterrorismo en el siglo XXI: de ‘seguridad’ a ‘defensa’”, in MORENO CATENA, Víctor Manuel (zuz.) eta SERRANO ARNÁIZ, Amaya (zuz.): *El Estado de Derecho a prueba. Seguridad, libertad y terrorismo*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2017, 119-150 or.

ANDRÉS SÁENZ DE SANTAMARÍA, Paz: “Siria: las dificultades del derecho internacional ante un conflicto poliédrico”, *Cursos de derecho internacional y relaciones internacionales de Vitoria-Gasteiz/Vitoria-Gasteizko nazioarteko zuzenbide eta nazioarteko harremanen ikastaroak*, 1. zk., 2018, 27-82 or.

BOEGLIN NAUMOVIC, Nicolás: “La resolución 2249 no autoriza a bombardear Siria”, *Red Voltaire*, 2015. <https://www.voltairenet.org/article189509.html>

BOEGLIN NAUMOVIC, Nicolás: “Francia en guerra: breves apuntes desde la perspectiva del Derecho Internacional”, *Derecho al día*, 2015. <http://www.derechoaldia.com/index.php/248-todos/internacional/internacional-doctrina/773-francia-en-guerra-breves-apuntes-desde-la-perspectiva-del-derecho-internacional>

BUENO ARÚS, Francisco: *Terrorismo: Algunas cuestiones pendientes*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2009.

CALDUCH CERVERA, Rafael: “El Tratado de Lisboa y la amenaza terrorista en Europa”, in MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, José (koord.): *El Tratado de Lisboa. La salida de la crisis constitucional*, Iustel, Madril, 2008, 451-467 or.

CANIZZARO, Enzo: “Contextualising proportionality: *jus ad bellum* and *jus ad bello* in the Lebanese war”, *International Review of the Red Cross*, 88. bol., 864. zk., 2006, 779-792 or.

CASADO RAIGÓN, Rafael: *Derecho internacional. Parte General*, Tecnos, Madril, 2012.

CASANOVAS Y LA ROSA, Oriol eta RODRIGO HERNÁNDEZ, Ángel J.: *Compendio de derecho internacional público*, Tecnos, 2015⁴.

CASTRESANA FERNÁNDEZ, Carlos: “Nueva tesis de defensa colectiva”, *Jueces para la democracia*, 50. zk., 2004, 11-15 or.

CERVELL HORTAL, María José: *La legítima defensa en el derecho internacional contemporáneo*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2017.

CHINKIN, Christine eta KALDOR, Mary: *International Law and New Wars*, CUP, Cambridge, 2017.

CONSIGLI, José A. eta LAVOPA, Federico: “Dos aspectos de la legítima defensa frente a la amenaza terrorista”, *Anuario Argentino de Derecho Internacional*, XV zk., 2006, 25-43 or.

CORTEN, Oliver: “The Controversies Over the Customary Prohibition of the Use of Force: A Methodological Debate”, *EJIL*, 16. bol., 5. zk., 2006, 803-822 or.

GHOTME, Rafat eta RIPOLL, Alejandra: “Las relaciones internacionales de la Guerra Civil Siria: Estados Unidos y Rusia en lucha por el poder internacional”, *Revista de Relaciones Internacionales, Estrategia y Seguridad*, 9. bol., 2. zk., 2014, 49-76 or.

GUTIÉRREZ ESPADA, Cesáreo: “«Choque de civilizaciones» (el autoproclamado Estado Islámico). Respuesta de la comunidad internacional. ¿Una «alianza de civilizaciones» contra el Estado Islámico?”, in SOROETA LICERAS, Juan (koord.): *Anuario de los cursos de derechos humanos de Donostia-San Sebastián*, Aranzadi Thomson Reuters, bol. XVI, 2017, 111-214 or.

HINOJOSA MARTÍNEZ, Luis M.: *La financiación del terrorismo y las Naciones Unidas*, Tecnos, Madril, 2008.

LATTY, Franck: “Le brouillage des repères du jus contra bellum. À propos de l’usage de la force par la France contre Daech”, *RGDIP*, 120. bol., 1. zk., 2016, 11-37 or.

LAUTERPACHT, Hersch: “The problem of the revision of the law of war”, *British Yearbook of International Law*, 29. bol., 1952, 360-382 or.

MOUSSA, Jasmine: “Can *jus ad bellum* override *jus in bello*? Reaffirming the separation of the two bodies of law”, *International Review of the Red Cross*, bol. 90, 872. zk., 2008, 963-990 or.

NOVOSELOFF, Alexandra: *Le Conseil de Sécurité des Nations Unies et la maîtrise de la force armée*, Bruylant, Brusela, 2003.

PAUST, Jordan J.: “Use of Armed Force against Terrorists in Afghanistan, Iraq, and beyond”, *Cornell International Law Journal*, 35. bol., 3. zk., 6. art., 533-557 or.

PÉREZ GONZÁLEZ, Manuel: “La legítima defensa puesta en su sitio: observaciones críticas sobre la doctrina Bush de la acción preventiva”, *REDI*, 2003, 187-204 or.

POZO SERRANO, Pilar: “La Carta de las Naciones Unidas y el régimen jurídico del uso de la fuerza: algunos problemas de interpretación actuales”, *Revista del Instituto Español de Estudios Estratégicos*, 1. zk., 2013, 1-28 or.

POZO SERRANO, Pilar: “La legítima defensa colectiva en el marco del Derecho y la práctica de la UE”, in CARACUEL RAYA, María Angustias: *Compartiendo (visiones de) Seguridad: IV Congreso*, ADESyD, Madril, 130-150 or.

REGUEIRO DUBRA, Raquel: *La legítima defensa en derecho internacional*, Instituto Universitario General Gutiérrez Mellado, Madril, 2012.

REMIRO BROTONS, Antonio, RIQUELME CORTADO, Rosa et al.: *Derecho internacional. Curso General*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2010.

RODRÍGUEZ CARRIÓN, Alejandro J.: *Lecciones de derecho internacional Público*, Tecnos, Madril, 2009⁶.

RUBIO GARCÍA, Dolores: “Las cláusulas de asistencia mutua y solidaridad introducidas por el Tratado de Lisboa: el refuerzo de la seguridad y la defensa en la Unión Europea”, *Observatorio de Política Exterior Española*, 2011.

SAIZ GARITAONANDIA, Alberto: “El concepto ‘terrorismo’ desde la perspectiva de las Naciones Unidas y su proyección penal y procesal a nivel interno” in MORENO CATENA, Víctor Manuel (zuz.) eta SERRANO ARNÁIZ, Amaya (zuz.): *El Estado de Derecho a prueba. Seguridad, libertad y terrorismo*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 63-81 or.

SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, Luis Ignacio: “Una cara oscura del derecho internacional: legítima defensa y terrorismo internacional”, *Cursos de derecho internacional y relaciones internacionales de Vitoria-Gasteiz/Vitoria-Gasteizko nazioarteko zuzenbide eta nazioarteko harreman ikastaroak*, 2004, 271-299 or.

VACAS FERNÁNDEZ, Félix: *El régimen jurídico del uso de la fuerza por parte de las operaciones de mantenimiento de la paz de las Naciones Unidas*, Marcial Pons, Madril-Bartzelona, 2005.

WALZER, Michael: *Just and Unjust Wars. A Moral Argument with Historical Illustrations*, Basic Book Classics, New York, 1997.

NJA-ren jurisprudentzia

Korfu itsasartearen kasua (Britainia Handiko Erresuma Batua eta Iparraldeko Irlanda v. Albania), epaia, *I.C.J. Reports 1949*, 4. or.

Ekintza militar eta paramilitarrak Nikaraguan eta honen kontra (Nikaragua v. Amerikako Estatu Batuak), epaia, *I.C.J. Reports 1986*, 14. or.

Arma nuklearren erabileraren edo mehatxu gisa erabiltzearen legezkotasuna, aholku-irizpena, *I.C.J. Reports 1996*, 226. or.

Petrolio plataformak (Irango Errepublika Islamikoa v. Amerikako Estatu Batuak), epaia, *I.C.J. Reports 2003*, 161. or.

Palestinako lurralde okupatuan harresi bat eraikitzearen ondorio legalak, aholku-irizpena, *I.C.J. Reports 2004*, 136. or.

Ekintza armatuak Kongoko lurraldean (Kongoko Errepublika Demokratikoa v. Uganda), epaia, *I.C.J. Reports 2005*, 168. or.

SK-ren ebazpenak

678 (1990) Ebazpena, 1990ko azaroaren 29koa, Irak eta Kuwaiteko egoerari buruzkoa.

748 (1992) Ebazpena, 1992ko martxoaren 31koa, ekintza terrorista eta Libiako egoerari buruzkoa.

1189 (1998) Ebazpena, 1998ko abuztuaren 13koa, Kenya eta Tanzanian gertatuko ekintza terroristen harira nazioarteko segurtasun eta bakeari buruzkoa.

1269 (1999) Ebazpena, 1999ko urriaren 19koa, nazioarteko bake eta segurtasuna mantentzeari buruzkoa.

1368 (2001) Ebazpena, 2001eko irailaren 12koa, Estatu Batuetan gertatutako ekintza terroristen harira nazioarteko segurtasun eta bakeari buruzkoa.

1373 (2001) Ebazpena, 2001eko irailaren 28koa, ekintza terroristen harira nazioarteko segurtasun eta bakeari buruzkoa.

1377 (2001) Ebazpena, 2001eko azaroaren 12koa, ekintza terroristen harira nazioarteko segurtasun eta bakeari buruzkoa.

1378 (2001) Ebazpena, 2001eko azaroaren 14koa, Afganistango egoerari buruzkoa.

1441 (2002) Ebazpena, 2002ko azaroaren 2koa, Irak eta Kuwaiteko egoerari buruzkoa.

2249 (2015) Ebazpena, 2015eko azaroaren 20koa, ekintza terroristek eragindako nazioarteko bake eta segurtasunaren aurkako mehatxuei buruzkoa.

2253 (2015) Ebazpena, 2015eko abenduaren 17koa, ekintza terroristek eragindako nazioarteko bake eta segurtasunaren aurkako mehatxuei buruzkoa.

BN-ren ebazpenak

377 (V) Ebazpena, 1950eko azaroaren 3koa, bakearen aldeko batasunari buruzkoa.

2131 (XX) Ebazpena, 1965eko abenduaren 21koa, Estatuaren barne auzietan esku hartzea debekatzen duen eta Estatuaren independentzia eta subiranotasuna babesteko beharrari buruzko Adierazpena.

2625 (XXV) Ebazpena, 1970eko urriaren 24koa, Nazio Batuen Gutunaren arabera Estatuaren arteko adiskidetasun-harremani eta lankidetzari buruzko nazioarteko zuzenbidearen printzipioen gainean egindako Adierazpena.

3314 (XXIX) Ebazpena, 1974ko abenduaren 14koa, eraso edo agresioaren definizioari buruzkoa.

42/22 Ebazpena, 1987ko azaroaren 18koa, Nazioarteko harremanetan indarra erabiltzarekin ez mehatxatzeko edo indarra ez erabiltzeko printzipioaren eraginkortasuna hobetzeari buruzko Adierazpena

56/83 Ebazpena, 2001eko abenduaren 12koa, Estatuaren legez kontrako nazioarteko egintzetatik eratorritako erantzukizunari buruzkoa.